


**"AITITA AMAMEN
TALENTUAK"**



AITITA-AMAMEN TALENTUAK



Bai, lagun bihotzekoak! Jesusek bialduta gatoz, ez dago Bera baino birus hoberik, edo hobeto esanda, birus gaiztoa gugan azpiratuko dauanik. Zeuok atera kontuak, ea ba ete dan birus hoberik, oraingo birus eta geroko birus gaizto guztiei gainerik egingo deutesenik. Bizian Gorako adiskideok, zeuok probatu dozue hainbeste urtez Bizian Gorak zelango “Jesusen txertoa” sortu dauan zeuon barruan, bestelako txerto kaltegarriak hondatzeko. Begira zelan auzolanean jokatu geinken bestelako birus gaizto guztien aurka, “Jesusen txertoa” eskuratu ezker. Zelan lortzen dan? Bakizue: bere Ebanjelioaz barrua garbituz eta argituz, bihotz eta inguruak lagunarteko girotan sendotuz. Bitartean dabilen Espirituak bizkortuko dau gugan “Jesusen txertoa”.

Hemen, ondoren irakurri eta barruratu daikezuez barrero zeuon artean batu dodazan “miraritxoak” edo sentitzen genduan Jesus zelan geuganutzen jakun eta geure jabe egin; eta Jesus dagoan lekuan ez dago beste birusik. Bion artean baietz menperatu? Batzarretan zeuoi entzundakoak dira,

sinistu ezinekoak. Holan alkarregaz gomutau egingo gara eta “beti bizirik dagoan Jesusen txertoak” askatuko gaitu eta geure buruaren jabe egin. Horretarako Agur Mari bat errezatuz, Jesusen aurrean jarri bihotz zabalik eta geu nagusi! Eta bertsoak gainera. “Jesusen txertoaren” ezinbesteko lagungarriak dira. Hamaika abestu doguz joandako urteetan! Hor doaz banaka batzuk.


Hara, zeuokandik entzun eta jasotako esperientziak dira, baina norenak diran izentau barik. Lotan euki doguzan dohaiak eta Jesusek gudan bizkortu dituan ahalmenak indarrean jarri eta uste ez genduzan gauzak (“miraritxoak”) jazo dira zuengan, Jaunari eskerrak. Horregaitik guk (Milak, Marianjelesek eta Martzelek) bialdutako lagungarriak irakurterakoan, astiro ibili, bitarteka zeure barruari itaunduz: Honen aurrean zer dinot? Nik hori edo antzekorik egiten dot? Hor doan txataltxoari “kopaua” deitzen deutsogu, “kopau espiritualala” dalako, bihotzean erabiliz bakez, pozez, Jesusen presentziaz jabetzeko.

Hona Frantzisko Aita Santuak dinoskuna: *“Panemiatik hobetuta urten daigula”*. Zelan edo halan “Jesusen txertoaz” baliatu eta...Geu nagusi! . Lagunei on egiteko, kopiak atera eta zabaldu; eta guztiei emon “Jesusen txertoaren” barri. Zaharrok ez garala alperrik bizi. Badoguzala “Zaharraren talentuak” eta bagoazela “mahastira lanera”.

Ikusi ezin doguna,
danok bildurtzen gaituna,
korona dala, birusa dala
sorginen laguna.
Ai mamorru ahalduna,
bada bat hilgo zaituna:
bizi-txertoa daukan bakarra
da JESUS GURE JAUNA.

Maitez hartuemonean
pozezko zorionean;
hartu dodana emoten jardun
eskuzabalean .
Eta gero azkenean
aztertuz maitasunean,
emon dodana eroango dot
haruntz noanean

Zaharren arteko afana:
"Nik hau, hori ahal dodana"
Isilik dago benetan hori
egin ahal dauana.
Danok ekin apur bana
ta egin bere esana;
azken batean Jesus Bera da
“txertoa” daukana.



“BIZIAN GORA”



BIZIAN GORA

Espiritu Santurik ez dagoala? Ala geure kristau eta Eleiz bizitzan baz-tartuta daukagula? Hau beste kontu zahar eta penagarri bat da. Gaurko Eleiz irudia ikusita, ez dago hori esan beharrik. Jaungoiko Jaunak gure fede esperientzian daukan hartu-emona Espirituari eskerrak. Nun dagoan Espiritua? Beragan sinistu eta norberagan sartzen izten jakon lekuan. Espirituari buruz gehiago daki eskola bako amama batek, teologorik haundienak baino. Gauza bat da buruz jakitun diranak eta beste bat jakitun, buruz jakitun ez diranak; horra Maria eta Joseren eta beste askoren kategori berezia.

Eta Bizian Gorako aitita-amamak hemen doguz maixu-maistra eginda. Hagaitik bizi dira pozik eta Jaunagandik hartu dabenagaitik eskerrak emoten gau ta egun. Penagarria da, baina munduaren eritxiz dana dakienak hutsik dagoz eta liburuetatik ezer ez dakienak dozuz benetako jakitunak. Zorionak eurai. ... *gizonak bere sen hutsez ez ditu Jaungoikoaren gauzak ulertzen, berarentzat zorakeriak dira-ta* (1Kor 2-3-4). Antzekoak dinoskuez Bizian Gorako aitita-amamak. Jesus Gure Jaunak Aitaren jokabidea ikusita hauxe dinosku: *“Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jaun hori, gauza honeik munduko jakintsu eta zuhurrai izkutatu eta txikiak agertu deutsezuzalako. Bai, Aita, horrelaxe nahi izan dozu. Neure eskuetan itzi dau dana Aitak eta Semea nor dan inok ez daki, Aitak izan ezik; ezta Aita nor dan be, Semeak eta Semeak agertu nahi dagionak izan ezik”*. (Lk 10, 21-22). Egundo ez dogu holangorik entzun geuretzat hain argi eta zehatz esanda. Beti ibili gara pekatua gora eta pekatua behera. Espiritua noiz edo behin entzuten izan dogu, baina gehiagoko barik. Amaitu daigun gaurkoa esanez: Espiritu

barik ez dago ez Mariarik, ez Jesusik, ez Eleizarik, ez santurik. Bera da Eleizaren arima; eta arima bako gorpua lez agertzen da Eleizea be Espiritu barik dagoanean. Eleiz Amaren bularretik Espirituaren esne gozoa edaten dauan seintxoa lez, bigarren umealdiko aiteitama-amamak be ase ezinik jabiltzuz galduta, esne hori luzaroan hartu ezik. Gora Aita-Ama Jaungoikoa,
munduko txikientzat hain bular gozokoa zarealako!

1

Bizian Gorak batuta

Ondo bizi gara.

Fede batek alkartuta

Ondo bizi gara.

*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

2

Jesus Jaunari jarraituz

Ondo bizi gara.

Eta urkoa maitatuz

Ondo bizi gara.

*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

3

Bizian Gora bidean

Ondo bizi gara.

Jesus dogula aurrean

Ondo bizi gara.

*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

4

Danok gara adiskide

Ondo bizi gara.

Jesukristogan senide

Ondo bizi gara.

*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

5

Jesusekin topo egin

Ondo bizi gara.

Lagun gara alkarrekin

Ondo bizi gara.

*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

6

Zer egin ondo dakigu

Ondo bizi gara.

Izan Jesusen testigu

Ondo bizi gara.

*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*



BIZITZAN BEHERA.... BIZIAN GORA

“Bizitzan behera, bizian gora”. Holantxe ibili ginan urte batzuk, Bizian Gora kristau jubiladuentzat martxan ipinten hasi ginanean. Geuk ere ez genkian asko. Esaterako, izena zuzenean ez jakun gogoko. Bizitzan gora barik behera da zahartzaroa; eta Bizian Gora, barriz, pertsona ez da txakur bat, barruan zentzun argirik ez daukana, gitxiago heriotzatik harunzkorik ezer. Horra hau ulertzeko, lehenengo zuritu behar dozun “artaburua”.

1972. urtean legezko eleiz mogimendutzat hartu eben Parisen, eta handik urte gitxira Katalunian sartu zan eta handik Madrilen eta Bilbon. Euskalerruari dagokionez, Bizkaian emon ebazan lehenengo pausoak. Hori bai, eztabaidatxo bat izan genduan hasieran: euskeraz eta erderaz izan behar ebalara era batera, eta guk ezetz; bestelan laster danak erderaz hasiko zirala. Euskeraz bai, baina geuk euskeratu behar gai guztiak. Euskaldun garbiak izan, eta euskeraz irakurten nekez ebiltzanak; erderaz zeozer irakurten bai. Baina Espirituagan gure uste osoa jarrita, lortu genduan euskal alderdian euskera hutsean eta nekez baina gogo beroz emon geuntson hasiera hainbeste baserrialdeko herri eta auzoetan. Hogeitaz urteetan hamabostero ordubeteko batzarrak, eurak bitarte horretan etxeetan gaia landu eta gero. Zenbat abesti barri, zenbat bertso, zenbat jardunaldi gozo eta sakon! Egia esan, neure bizitzako jardunaldietan gozoenak, sakonenak, pozgarrienak Bizan Gorakoak izan dira. Eta neuri ere munduko txikiak haundiak baino gehiago erakutsi deuste. Eskerrik beroenak Bizian Goratarrei! Benidorrera eta abar baztarretara joaten hasi ginan, gaina urte gitxi barru itxi geuntsan geure lurraldetik urteteari. Gure Nagusiak esperientziz ikasi eben Benidor xelebrekerietan jarduteko ona dala, baina Angosto, Arantzazu eta inguruko bakardadeak egokiagoak, inguruak baino, barruko kontuak bizi eta jorrazteko. Ez dakienak balekie...

Urruneko Jaungoikoa
gaur egin jat etxekoa;
bildurrezkoa zana egin jat
maitagarrizkoa.

Jesus da bitartekoa,
aixkide bihotzekoa;
neugandik dakit: hori daukanak
badauka nahikoa.

Lehengoa lege, dotrina,
nekea eta ekina...
kristau bizitza bihurtu jatan
onartu ezina.

Gaur nire poz atsegina:
Zertarako ahalegina?
Legea barik, Pertsona bat da
nire maitemina.

Hau aldaketa sakona
neure bizitzan emona!
Jaunak bakarrik aldatu leike
bihotzez gizona.
Bizian Goran dagona
Zertan dagon zoriona:
Bizi barriko bidea dala
Gure Barri Ona.

BIBLIAKO BIDEAK IKASTEN

Entzun al dozu inoiz Biblia irakurtea kristau normalentzat galazota egon zala? Eta ba ete dago pekaturik Biblian aitutzen ez danik? Behar bada, kristauok Biblian ikasi ez daigun pekatu egiten? Dana dala, Vatikanoko II. Kontziliok zabal-zabalik ipini deusku Liburu Santu hori, bardin Meza-liburuak. Oraindik bizi diran sakristau zahar batzuei entzutea baino ez dago, abadearen deiari meza barruan erantzuten. Sakristau batek esaten eustan: "Oraintxe galdu gara sakristauok korutik hileta-mezai erantzuten; ganoraz berba bat be ez". Iturri bakarra abadeak Eleizan, eta gehienetan ez. Biblian gizaldi askotako ohiturak eta berbakerak datoz nahastean. Liburuak eukita be, zenbatek ekien irakurten? Banakatxo batek. Baina halan eta guztiz ere, zenbat santu eta martiri kristauen artean! Espiritu Santuak argitzen ditu gure barruak goi argiz, gainerakoa norbere zintzotasunari esker. Gure amamen artean zenbatek ekien, ba, idazten eta irakurten? Eta sinismen bizitzari eutsi? Bai horixe, odola isurtzeraino. Bizian Gora kristau jubilatuen eleiz mobimentuan batzar guztien argibideak Domeketako Ebanjelio atalak dira. Baina etxerako emoten jakez ebanjelio atalagaz batera, bertako egirik sakonenak hiru-lau puntu interesgarrienak jarrita, bakotzak etxean eta hamabostean behingo batzarrean guztien artean, arduradun baten laguntzaz, hausnarketa zehatz baten bidez norbere bizitzara ekarteko. Horrez gainera, noizean behin egun osoko jardunaldiak eta urtean behin edo birritan aste osoko jardunaldi gozo luzeak Angoston, Arantzazun, Santanderren. Jakina, hainbestegarren urtetik gora, hain lagun eta ezagun haundiak egiten izan dira taldekideak. Herri askotakoak sinismenezko familia bat eginda, halako giro alai eta gozotan (hainbeste euskal bertsoz, abestiz eta txistez nahastutako girotan), buru-bihotzak argiz eta gozoz, bakez eta pozez barruak gainez eginda...Lehenagoko mixino santuetan erabilten ziran orroen ondoan, beste giro bat sortzen izan jake euren artean. Hau beste gauza bat da! Hau beste Jesus bat, hur-hurrekoa, beste Jaungoiko Aita onik onena, Espiritu Santua, aspaldiko ezezaguna geuri zelan on egingo! Gu zetan ibili gara gaur arte? *"Hain maite izan dau Jaungoikoak mundua, bere Semea emoteraino"*.

Sinisten dogu Jainko
Aita zaituguna,
hutsaren hutsetik Zeuk
sortu gaituzuna.
Zure eskuan gure
gaua ta eguna
Zu gugan ta gu Zugan
hau da batasuna!
Agortu ezina da
zure maitasuna.

Ez da beste aitarik,
ez beste amarik,
Zuk hainbeste dauanik
gure ardurarik.
Zeutzat sortu ginduzun
ez dot zalantzarik,
Zuk ez dozu galdu nahi
seme-alabarik;
ez Zuk ez guk ez dogu
pozik alkar barik.



SIMEON ETA ANA

Jaungoikoak Berak erabagi eta bide egokienak egin ditu seme-alabon etxea (mundua) guztion bizileku egokitzat izateko. Mundua egiterakoan dana erabagita eukan: zelan, zetarako, gizakia guztiaren nagusi egin, gizaldirik gizaldi, munduaren azkenera arteko erabagia, seme-alabontzat bizilekua. Alperrik naturaren nahaste-borrasteak, alperrik gizakiaren harrokeri eta astakeriak. Eta danaren koroi ederra, bere SEMEAREN GIZAKUNDEA. Dan-dana -batez ere Jesus Semea geure antzeko gizaki egitea-, dana geure bizilekutzat danontzat MAITASUNEZ eginda. Jaungoikoa ez dabil gaur bai eta bihar ez; dana ondo eginda dago eta dana gizakiaren onerako. Hau mundu hau hutsetik sortu eta maitasun hutsez emon deuskunak seme-alaba guztion bizilekutzat emon deuskuna deika dogu gaurko profeta askoren bidez, lehenengo lekuan Aita Santua bera dogula. Gizaldietan, lehen eta gaur, Aitak behin Semea bialdu euskunak, noizean behin profetak bialtzen jarraitzen dau, bidea galdu eta geure bizilekua hondatu ez daigun.

Gaur ekarriko doguz gogora Simeon eta Ana. Jaunaren Espirituz beteriko profetak, biak Jerusalem inguruan deiadarka: Mesias hemen da, Aitak agindutakoa badator, antolatu bideak. Halako egun baten, Simeon profeta zaharrak badihardu, Jerusalengo eleizan ume jaiobarriak, gorputzean ebagitxo bat eginez, Jainko herritartzat hartzeko bedeinkazio bereziak emoten. Hainbesteren artean bere Semea. Simeonen zoramena! Hartu bere Ama Mariaren besoetatik Umea eta haren aleluiak eta goralpenak, pozaren pozez zoratuta lez: *“Eskerrak Jainko! Azken baten bete dozu emon zeunstan zure berbea. Ezagutu dot gure Salbatzailea. Orain eroan naikezu mundutik Zeugana”*.

Han bertan ebilen beste emakume alargun bat, profeta Espirituz beterik, gau eta egun pobreei laguntzen, taldeak batuta, bide zuzenera jenteari deiadarka. Ikusten? Jaunak hartutako bideak: Aitita-amama zahartxo bi, baina Goi Espirituz eraginda. Biak zaharrak, baina biak Jaunaren Espirituz beteak, Haren bideetara jenteari deiadarka.

Anai-arrebok, kristau herrian uste dogun baino ardura gehiago dago Jaunaren deiadarrak, aintzina Simeon eta Anaren antzeko profetei Jaunaren deiadarrak entzun eta bere esanera jarri daitezkan. Baina hain gagoz bidetik kanpo, gogor egiten jaku bideratzea. Erromako Aita Frantziskok zaharrei, jubilatuei dei eta dei egiten deusku.

Zaharrak bai, baina Jaunaren Espirituz argituak, urteetako esperientziz eragindakoak. Ez isiltzeko, gaurko profeta aitita-amamak egin behar dabela, nahizta jenteak aintzat hartu ez, nahizta lelokeritzat hartu. Entzun gure zaindari diran Simeon eta Anari, argitu gaizela; ez isildu, ez gixajotu...Zaharren eta gaixoen bitartez Jaungoikoa deiadarka daukagu: Jeurt bide txarretik, Jauna deiadarka dago, Jaunak berea eginda dauka, geuk urten dogu bide onetik; txertoak ondo dagoz, baina txertorik behinena, derrigorrezkoa hau da: Aitaren etxea, geuretzat egindakoa zaindu eta alkarren onerako antolatzea da. Hau da Aita Santuak proposatzen deuskun bidea: *"Pandemiatik urtengo al dogu hobeagotuta"*.

Ni izatez izanik
Zuretzat egina,
Zuretzat izan ezik
hau ase ezina.
Zure eskuan gure
poz ta atsegina.
Zu izanik guretzat
hain maitale fina,
gehitu Zureganako
gure maitemina

Baditugu eskeintzak
inguru guztitik
iruntzi ahala gauza
kontsumo ontzitik.
Gehienak kalterako
hamar hamabitik.
Gaur oihu dagitsugu
bihotzen erditik:
Emoiguzu edaten
zure iturritik.

Seintxoa bila dabil
amaren bularra,
eta aurkitu arte
garraxi negarra.
Areago guretzat
oi zure beharra:
erakutsi eiguzu,
Aita zerutarra,
gu aseko gaituan
iturri bakarra.

KRISTAU JUBILATUEN AUKERAK

Gure azoka eta plazetan bakotxa ahalegintzen da etxean daukazan bendejarik ederrenak plazara eroaten. Bakotxak egiten ditu ahaleginak bere edertasun horreek erakusten eta goratzen. Beste testigurik ez dau behar. Begira zer dinoskun Jesusek: *“Ni gehiago ez nau munduak ikusiko; baina zuek izango zaree nire testigu”*. Zure, gure etxean ez da abaderik behar, ez katekistarik, kristau etxean emoten ez bada kristau testigantzarik. Ezkontzerakoan aita-amak emon eben baietza, izenpetuta gainera. Baina gaur laster desagertzen dira sinadurak eta guzti. Gurasoak bokazino barik baietza izenpetu arren, barruko eta inguruko haize hotzak orbelak lez daroaz. Badira han-hemen kristau taldetxoak, arduraz alkartzen diranak, ume eta guzti leku berezietan alkartzen diranak. Holango apur banakak dira gauza gaurko egoera honetan emondako baietzari eusteko. Kristau sinismenak eta lagunarteko berotasunak euskarri bereziak dira. Borondatea ona da, baina ez da nahiko alkarteko lagungarriak behar ditu. Bokazinodunak izan behar: “Bokazinoa” Jesusen deia da, zeuk holan hartzen dozunean konpromisoa, zeuk “barrukoagaz” onartzen dozunean arduraz... Negu baltzean (edurra zuria eta baltza da era batera sarritan), bardin holango ordu baten: zetara jotzen dozun, kontzientzian onartzen badozu. Espirituak oratuta bazagoz, barrutik bizi bazara, eutsiko deusazu, biziko zara.

Ez abade, ez sakristau,
eta nok egin behar dau?

Inor ez al da kristinau?

Joxpa ta Kitxo argitu dira,
behar danerako prestau;
laster dira beste hiru lau,
baietz laster aldatu hau!
Ni horrexek poztuten nau.

Batera edo bestera,
zintzoak badau aukera
emon pausu bat aurrera.
Ez da ezina, baietz esanda
aldatu zeure jarrera.
Kristau on baten antzera
eup Jesusen esanera,
gaur deika daukazu Bera.



KRISTAU JUBILATUAK EZIN JUBILATU

Zer deritxazu: Kristau jubilatu bat ezin dala jubilatu? Holangorik ez dot entzun. Lehen gitxi badira, holangoak entzunda... Baina zorionekoa maila horreetaraino heldu dana! Bestalde, penagarria, baina holantxe da bai. Bizitzeko eten barik arnasa hartu behar da, ez dago etenik be. Etena, azkena! Bizitzak berak eskatzen dau bizigarria sarri, eta ez edozelakoa. Gaixoaldiak ustekabeen astintzen gaitu. Kristau bizitza ez da noizean behinka pastila osagarri batzuk hartzea (Gure Jauna eta holakoak),ardura haundiz zaindu behar dogu geure bizia, esan beharrik ez dago. Aita Frantzisko Erromakoak esan ahalakoak dinoz aitita-amamen alde. Orain hiru urte alkartu ziran beragaz Erroman 7.000 aititamama eta gogoan hartzekoak dira han aitita-amamak entzundakoak: *“Eleizeak zuok nagusiok maitasunez, eskerronez eta estimazinoz hartzen zaitue”*. “Historiak dinonez, nazinoetako erasoaldi gogorretan, zuon antzeko adinekoak izan dira, Eleizearen aurkako erasoetan, euren herrietan sinismenari eutsi deutsoenak. Errusian bertan 75 urte galazota egon zan Eleizako ardurak eta eginkizun guztiak. Zeuon antzekoak izan ziran, isililean eutsi eutsoenak sinismenari bizirik. *“Eta giro negargarri hori amaitu zanean, han-hemen bizirik agertu zan kristautasuna. Eskerrak familietako amamei”*. Eta herrietako gazte eta nagusiak beharrezkoak dabez euren arteko hartuemon gozoak eta sakonak, sinismen eta barruko bizitzaren aldekoak. “Zuek egin berba ilobakaz, emon aukerak zeuoi itaunak egin dagitsuezan” (Aita Santuak). Zer penagarria dan batez be, aititak eleizea guztiz itzi dabela ikustea. Eta eskari bero bategaz amaitu eban: *“Nik beti gogoan izango zaituet eta zuok ere ez ahaztu nire alde otoitz egitea”*.

Joxe ta Patxi Buztarri

biak jubilatubarri
zetan lagunduko larri.

Eleiz ta torre nok konponduko
hortxe dagoz lotsagarri,
Hau kendu, hori ekarri,
adore emonez alkarri;
laster danak txukun jarri.

Jubilatuen etxean

tristuraz bete antzean,
dana izteko trantzean.

Joxe ta Patxi hor sartu dira
alaitzeko ametsean;
momentu txar bakoitzean
sartzen dira otoitzean,
Jaunak barrutik deitzean.



ESPIRITUAREN ELEIZA

Eleizaren sorrera Jesus berbiztuaren ondorengoa da, bere biztuerako Espiritu Santuaren etorrereaz. Hori agindu eutsen Jesusek. *“Zuek alkartuta jarraitu otoitzean, eta bialdutako Espirituak argitu eta sendotuko zaitue. Ni beti izango nozue zeuokaz”*. Alkartzen jarraitu eben; izenez *“Jesusen jarraitzaileak”* deitzen eutsoen, gero *“Kristinauak”* –hau da: *“Kristoren jarraitzaileak”*- eta alkarteari geroago baten *ELEIZEA*. Espiritua 12 apostoluengana lez, eurakaz egozan gizon eta andra guztien gainera jatsi zan: danak ziran Jesusen testigu, danak sentitzen ziran *“senide”*, bai Jesusegaz eta bai alkarren artean. Espirituak bakoxtari emoten eutsan dohaiez egiten eben otoitzaldiak prestau, gaixoak zaindu, pobreen artean jatekoa eta abar banandu... Geroago *alargunak* izan ziran lehenengo *“taldetxoak”* eratu ebezanak, batez be, gaixoei eta pobreei laguntzeko. Jesusen Espirituari esker, gaur ere gure artean itzartu dira kristau batzuk, euren artean taldetxoak eratuz, *“eleiztarren”* bidez Ebanjelioa zabalduz, Jesusen dotrinaz eta sakramentuz janaritzen ebezan. Hori bai dala Eleiza bizia. Holako eleiza gura dau gaur Aita Santuak, aspaldion daukazan lege eta arau-txortak kendu eta Espirituari leku gehiago emonaz. Hona han-hemen gaur ere gure artean sortzen doazen kristauen arteko *“eleiz barri, txiki, biziak”*, beste era bateko topaketak eginaz, alkarren artean Jesusen presentziaren poza eta indarra erakutsiz eta zabalduz. Holakoxea zan Antonio eta Klaudiaren etxean batzen dan *“Eleizatxoa be”*. Bat gaixotzen bada, han alkartzen da taldetxoa, auzoan norbait hil edo gaixotu eta preminaren baten azpian jausi dala? Han batzen dira *“kristau senide”* sentitzen diranak, Espirituak eraginda egin behar dana egiteko. Ez ete da giro barri honetako talde txiki eta bizi horreek ugaritzeko modurik? Bai geuk gura bagendu, Espirituari leku gehiago emonez. Ea ba!

Ez zan eleiza tenplorik
ezta horren antzekorik,
eta kristauak alkartzen ziran,
ez ziran askorik.
Espirituaz berorik,
ez bildur, lotsaz ketorik,
eurak ikusiz eta entzunaz
nahiko zan kredorik.



Ea, kristauok, gaur Eleizara,
bateo, Errosario...
gizaldietan zaindu ditugu
mila dogma, usadio...
Espirituak deiar
entzun-erantzun behar,
bestelan ez dau balio;
Aita Frantzisko Erromakoak
Espiritua dario

ESKERRONEKO BIHURTU NAZ

Ez dot ipinten inoren izenik, arlo bakotxean asko dirata. Kristauok Jaunaren eta santuen aurrean etenbako eskekoak ei gara. Mezatik hasita, esker emotea eginbehar eskasa da. Ateraten diran mezak eta egiten diran promesak asmo bardina dakarre. Eta, egi-egia esan, mesede eta esker barriak lortzeko; baina sinismen biziaren argitan, bide errez eta indartsuena hartutakoakaitik esker bardinak gitxienez emotea da. Hartu dozuzan hainbeste mesedeakaitik Jaunari esker beroak emotea. Halako batek inoana: "Sei gauza eskatu deutsodaz Jaunari; eta bat izan ezik, guztiak emon deustaz; baina emon ez deustan horigaitik be eskerrak emon deutsodaz. Berak nik baino hobeto daki zer komeni jatan eta hagaitik be eskerrik asko; eta ordezkorearen zain geratzen naz". Horretarako Jaunagan uste osoa izan behar dogu, gehiago ezinean maite gaituanak eta gehien komeni jatana zer dan Berak dakialako.

Kristau mogimenduren bateko lantegian birziklatu diran hainbeste kristauk mezarik gehienak eskeindu ohi dabez hartutako grazi eta mestedeen ordaingarri. Hori bai gero, egin beharreko ekintzak eta zerbitzuak ez leukee izan behar beste laguntza barri batzuk lortzeko, aurretikoak ordaindu (eskertu) aurretik, daukazuzanak kitutu arte. Badogu zati baterako arloa!

Entzun Jesus Maisuari:

"Nagusia, zerbitzari":

Kristau dala-ta zerbidu behar
batak besteari.

Dohaiak dira ugari.

kontu asko daukanari...

Oker jokatuz egiten deutso
kalte Eleizari.

Eleiz Amaren indarra

ez da txintxin parra-parra,
bakoitzak bere lekuan emon
behar dau paparra.

Kargu, titulu ta abarra
mundukerizko gangarra;
lehenengo danok daukagu kristau
on izan beharra.

Goratu daigun Jainkoa!

hau ere ez da nahikoa;
mundu-barruan prestatu behar
pobreentzat mahaikoa.

Kristau aste ta jaikoa,
bizi garan sasoikoa:
besteak beste Eleiz zara ta
jar zutik laikoa!

JESUSEK BERE MAHASTIRA BIALDU NAU

30 urte daroadaz Euskalerriko 28 herrietako aitita-amama taldeak Jesusen Ebanjelioaren eskolan birziklatzen, legepetik atera eta maitasun bidera aldatzen. Jarduera pozgarria, baina nekeza: Ezin Legepetik eta pekatupetik askatasun bidera aldatu. Dotrinatik hasita zahartzarora arte pekatua gora pekatua beheara ibili, eta hau orain. Eta eurakaz batera neu be aldatu egin naz. Jesus gure Lagunak erakutsi euskun bidea bestelako bat dala: maitasun bidea, askatasun bidea, jarraipen bidea. Legepeko buztarripetik Espirituaren maitasun bidera aldatuta. Jesusen parabola batek atera ninduan ilunpetatik argitara: Harako bere mahastira beharginak bialdu ebazanekoa: batzuk goizetik, eta denario baten berbatuta. Handik hiru ordutik hiru ordura beste batzuk. Eta ordaintzerakoan, lehenengoei eta azkenengoei soldata bardina. Hasikeran ezin ulertu izan neban jokabide honen sekretua. Baina ulertzen joan nintzanean, sartu nintzan Bizian Gora eta ibilian-ibilian neuk be soldata bardina. Eta lehenengoei berbatutakoa emon eutselako; eta azkenengoei, aurretik aukerarik izan ez ebelako eta dirua berea zalako eta berak gura eban lez banandu eikealako. Neure kautan esan neban: Hauxe sekulako aukerea niretzat: Jubilatuta, zer eginik barik, mila aukera soldatapean sartzeko neure bizitzaren azkenetan. Holangorik! Ez gero, ez dago traturik egiterik munduan. Ez holangorik, Felipe, ez da ezagutzen munduan; ez da izan ezta izango be. Lehenago jakin izan baneu... Ez dau inor gura eguneroko ogi barik ikusi. Felipek inoanez, gau bat edo bi be emon ebazala hausnarrean, artaburu hau zuritu ezinik. Holan dala, ezin dot egun bat be alperrik galdu bizitzan. Jubilatuta nagoala ta ez dago aharrausika denporea emoterik. Sartu banintzan sartu nintzan, eta benetan ez dago hau zer dan jakiterik, norbera sartu eta bihotz zabalik Jaunagaz hartuemon egiten ez badau. Harrezkero nire bizitza beterik dago, bizitza ez bakarrik, bihotza ere bai. Hau dok suertea! Lehenago jakin izan baneu

Mobidu nintzan mobidu
orain ezin errendidu;
Bizian Goran sartu nintzan ta
ezin naz kabidu.
Azaletik naz txikitu
baina barrutik haunditu,
Jaunak nigan hau egin ondoren
zelan ez harritu?

“Neure burua salbatu”
bestez ez nintzan kezkatu:
Bizian Gorak begi-bihotzak
eustazan zabaldu.

Lehen baliogabekoak
ta orain baliozkoak,
aldrebes jarri deustaz Jesusek
nire balioak.
Hareik ziran pasokoak.
honeik, barriz, betikoak,
a zer indarra daukan Jesusen
Ebanjelioak!

Jaunak ninduan askatu
hurkoagana bialdu,
altxor hobea aurkitu ahala
dana neban saldu.



BISITARI TALDETXOAK

Han-hemen ugaritzen doaz laguntzile taldetxoak jubilatuen artean: taldetxoak eginda, asteen behin edo bestetan, gaixo eta zahar lagunei bisitatxo batzuk eskeintzeko. Batez be herri haundietan.

Ebanjelioko argitan gauzak ikusita, zer poza emoten deutseen gaixoei Eta askoz gehiago Jesusi. Badira jubiladu taldetxoak "Nagusilan" izena daroenak eta gure herri haundietan horretara jokutzen dabenak.

Penagarria da maitasunez eta errukiz antzeko ekintzetara ez jokatzeara, hainbeste denpora eukita. Dirurik ez da irabazten, baina Jaunaren aurrean saria: "Holakorik egindakoa Neuri egin zeusten". Berak esandakoa... Hara, gogoan daukazu lau gizonek anda baten hartu euren lagun gaixo ezindua, eta bidez bide Jesusengana bide luzean eroana? Jentez beteta etxea, eta teilatuan zuloa egin eta Jesusen aurrean ipini eta Jesusek osatu ebana? Batek ezin, lau lagun alkatu; eskuz ezin, eta anda baten; jentearen jentez, atetik ezin, eta teilatuan zulo bat eginda.... Asko maite danean, zer ez da asmatzen eta egiten? Jesusek ez deutse ba lagunduko holango sinismena ikusita? Eta eurak barik, Beragana ekarri ezik, Berak be ezin... Holangorik?

Bisitari taldeak
ditugu pozgarri,
eta salbau beharra
norberak dau sarri.
Salbagile taldeak
dira goralgarri,
lau lagun maitaleak
lagunduz alkarri,
hor dabilta lanean
eroan-ekarri.

Gaixoei egina da
Jesusi egina,
holako baxotxean
Hark zer atsegina!
"Gaixoak hainbat behar
eta Nik ezina,
zuek eta Nik egin
daigun ahalegina"
Anai-arrebok hau da
Jesusen dotrina.



EZ NAZ BAKARRIK BIZI

Sarri entzuten da kristau artean txikienak dakiela gehien. Baina jakituri hau ez da ume edo gazte artean ikasten edo eskola-unibertsitatean. Barruko eskola honetako Maisu bakarra Espiritu Santua da, Mariagan hasita, Jesus ezagutzera emoten dauan bakarra. Horregaitik gizartean jakitun haundi asko bada, baina maitasunezko zerbitzari gitxi; Espirituaren eraginez, jakitun gitxi, baina zerbitzari asko. Horregaitik, eta penagarria da esatea, bata bestearen aurka jokatzuz, alkar izurratzeko da eta ez gizartea hobeagotzeko. Eskerrak zaborreri artean lore usaintsuak be aurkitzen dirala, baina doango gehiago txikien artean. Hau be bada ba: Ustez dakienak ez dakie eta buruz ez dakienak badakie praktikan. Jaungoikoa nor eta zer dan bakarrik dakie, bere Espirituaren bidez dakienak.

Hori dala ta, Aita Santuak dinotse milaka aitita-amamei Erromako plazan: *“Eskerrik asko Eleizaren alde egin dozuen guztiagaitik. Bakotxak bere sinismenez zaintzen dozue bere sua. Zuok zaree hauts azpian dagozan munduko txingarrak, eragozpen askoren artean. Sinismenaren txingarrak, itxaropenaren eta ezkutuan dagoan poztasunaren txingarrak. Zaindu txingarrak bihotzean”*. Eta amaitu eban esanez: *“Zuen bizitza ez da alperrikoa izan. Amaitzen doan sugarra izan da, baina hor gelditzen dira txingarrak. Eta, mesedez, entzun eta egin berba gazteakaz. Ez da errez gazteak ulertzea, baina beharrezkoa jake zuen esperientzia eta zuen ezkutuko txingarren sua. Hauts azpiko txingarrak. Gorde bihotzean hiru gauzatxo honeek: **Txingarrak zaree, berba egin gazteakaz eta otoitz egin Aita Santuaren alde”**.*

Gure Fernanda baserri baten
bakarrik ta alarguna,
txakur haundi bat eukan etxeko
bere zaindari laguna.
Etxe ondoko ortu batean
emoten eban eguna.
Isil-misilka pobre-artean
bere maitasun lurruna,
izerdiz ondo bedeinkatua
Fernandaren ontasuna!




“Ustekabean gizona hil jat
benetan ona izan da,
baina badaukat beste lagun bat”,
benetan dabil Fernanda...
Oraintxe dakit nor dan Jesus hau
onena dala esanda,
Ni on eginez ondo bizi naz
eta joanak joanda,
senarrak goitik eta nik behetik
“gaur eskerrik asko” kanta.

HALAKO TRASTOA!

Nazareteko Jesus ez zan izan edozelango gizon bat; ezta beti errezu hutsean egoan gixajo bat. Orduan lez gaur egunean be badira bere deia entzun, gorde eta beteten dabenak: *“Zatoze neugaz eta Neuk egin zaituet gizakien arrantzale”*. Ondo jatea gustatzen jakon, mendiko haize gozoa ere bai, Tiberiades lakuan Pedroren txalupan ibiltea ere bai, lagunarte alaiak ere bai. Baina egundo ez batera, ez bestera aldendu barik. Aitaren neurriko Semea. Hagaitik dakigu zelangoak izan ziran bere jarraitzaileak. Jesusek landu egin zituan bai gizonezkoak eta bai andrazkoak. Pekatariakaz inor baino errukitsuagoa zan. Hor datoz gizon talde bat harriak eskuetan hartuta, pekatuan aurkitu eben andratxo bat erdian ebela, legeak agintzen eban lez, harrika apurtzeko. Baina Jesusek ez: egindako pekatua ez dau onartzen, baina bai emakume pekataria: *“Pekatu egin ez dauanak bota harriak”*, dinotse. Eta zaharrenetatik hasita, harriak eskuetatik lotsaz jausi egin jakezan, eta alde. Eta Jesusek andreari: *“Inok kondenatu zaitu? -Ez. -Nik be ez zaitut kondenatzen, baina ez zaituz gehiago bide horretatik ibili”*.

Gure Pepe be trastoa zan, baxotxa bere amagandik urtendakoa. Baina Jesusek landua, zerbitzaria, bakezalea, Jesusegaz adiskidetu, familian baketsua, auzotar zintzoa. Gizon landua, trastoa birziklatua. Halako lagun baztuek eroan eben batzar batzuetara, eta handik aurrera Jesus Jaunagaz eta bere deiari jarraituz, beste gizon bat izaten hasi zan.

Trasto samarra zan gure Pepe
baina bestetik samurra,
Eleizan sartu atzez aurrera,
amen baino lehen agurra.
Bizian Goran sartu zanetik
Meza luzea, laburra,
bere orduan plater ta guzti
batzen dirutxo apurra...
Zelan leiteken holan samurtu
mamin gitxiko hazurra!!!



Zelan leiteken gizasemea
bere izatez aldatu,
errukiz eta maitasun beroz
ezin gehiago eskatu.
Bazan gizon bat hankarik gabe,
nori laguntza eskatu?
Lagun “barriak” bihotz bihotzez
maitasunez besarkatu,
handik aurrera bere laguntzaz
bai ondotoxo paseatu!

JAUNAREN ARGI BRISTADA

Bizitzan aidean ,lurrari ikutu barik dabiltzanak errezago Jesus Jaunarengana hurreratzen eta Beragaz bat egiten dabe, etenbarik intsentsu ke artean dabiltzan asko baino. Kontua zera: Haizetan dabiltzanak gehienetan hegoak jarreraz aldatu eta haizeak nora hara doazela. Eta bizitza haizetan dotore emon, eta gose danean bakarrik jatsi inoren kontura jateko.

Horreetarikoa zan gure Peru. Baina gitxien uste eban egun baten, brist-brist argiak ikutu eutson barruko zera: - Zergaitik ez zara auzoko Joxe, Migel eta Andresegaz alkartzen eta lau eskola-lagunok batera mezara joan, tabernan karta jokoan eginaz zeozertxo jan-edan edo kontu pilo bat alkarri kontau? Haizetako txoria hasi zan lurrean ibilten, eta bristada horrek eraginda, bere hiru auzotarrei eskeindu deutsee domeketan beragaz batera bere kotxea eta laurak oso pozik, aste osoko joan-etorriak alkarri kontau, eleizako eta herriko gorabeherak konpondu eta...sekulako ondoen. Hirurak pozarren Peperen bristada horri esker.

Jakina geroago eleizan entzunda, bristada horrexeek dirala Jaunaren deiak. Eta behar dan modu onean erantzun ezik, alperrik galtzen dala. Peperen poza Jaunak beragaz kontau ebala ta, beste hirurak be mezea entzun eta egun zoragarri bat domekero gozatzeko. Handik aurrera sarri jarraitu ebazan barruko bristadak. Pepe bera inor baino pozago, eta inoiz baino pozago eta beteago bere barruan. Eta nok jakin? Bere jarrerak eraginda beste batzuk be barrutik eraginda ipiñi behar bada. Bristada bati esker, zenbat on!!!

Mendi aldeko hiru aititak
Mezara ezin joana,
eta Jaunaren argi bristada
auzoko Perurengana:
"Prestau zaitez zeu Peru,
zeuk egin gaur aingeru,
ekarri eizuz Neugana".
Aste buruan Peruren poza:
hirurei abisu bana.



Ikusi, jaunak, on egiteak
zer bizipoza dakarren,
lau aititak gaur mezara doaz
saltoka kanpo ta barren.
Meza ondoren kartak
aititentzat apartak,
bardin erren egon arren...
handik aurrera huts egin barik,
honezkero zenbatgarren?

JESUS TXOFER LAGUNA

Jesus Jauna gugana jatsi zan, eta danetan egin zan gure antzeko, pekatuan izan ezik. Hagaitik badaki gizartean bizitzea zer dan, badaki nor nor dan. Hagaitik berbiztuta gero, ez da gugandik aldendu, geure artean bizi da. Ondo ezagutzen gaitu, batez be pobreak, eguneroko lanetik bizi diranak; eta jatsi zanean, euren arteko bat izan zan. Horregaitik badaki euren izerdien barri. Hurretik ezagutzen gaitu, hagaitik behartsuen alde jartzen da beti; bere atzetik ebiltzanetatik hamarretik zortzi behartsuen eta gaixoen artekoak ziran. Aitaren aurrean azkenengoak lehenengo dirala, eta hemen lehenengoak han azkenengo. Berak badaki eguneroko ogia irabazi eta jatea zer dan, herriko plazan orduak egotea zer dan, nok lanera deituko huskeri baten truke. Holakoak ezagutu eta ulertu eben ondoen Jesus nor eta zer dan.

Holango gizon behartsu bat zan Kaxinto, bere kotxe zahartxoaz taxista ebilena batetik bestera. Eta sarri prixaz ebiltzan pobreak eta bide batezko herritarrak. Kaxinto holangoen lagun haundi egin zan. Holako baten, eskean ebilen praile bat eroatea suertatu jakon. Honek Kaxintoren ontasuna gogoan hartuta, badinotso: *“Holango mesederik egiten dozun bakotxean Jesus Bera eroango bazendu lez da”*, esan eutson. Ondo gogoan hartu eban Kaxintok, eta gero eta gehiagotan egiten ebazan holango mesedeak. Azkenean, herritarrak ezizen hau ipini eutsoen: *“Jesusen txofer laguna”*. Nok, eta Jesusek holangoak esaten eutsezan.

Kaxinto taxi txoferra dozu
ta gainera alarguna,
bidean inor oinezkoren bat,
laguntzaile ezaguna.
Inor pobrerik bazan
edo galdurik plazan
Kaxinto arduraduna:
Izenez deitzen eutsien danak:
“Jesusen txofer laguna”.



Beharlekuak ez eutsan izten
beti mezako legean,
Jesus Berari laguntzearren
gelditzen jatzun lanean.
Mezea gorabehera
nik daroat Jesus Bera,
beti bere izenean;
Harek gu behar, eta guk Bera,
neu irabazten trukean.

JESUS ERDIAN DALA MEZA ORDUAN ETXEAN

Noraino heldu garan: badira 10 milatik gora biztanle dabezan herriak Abade bategaz edo bigaz gelditu diranak. Besteak "alkarte-ospakizunak". Gaur oraindik abade bako ospakizunari ez jako emon kristau alkarre bereziari zor jakon balioa eta onarpena. Ez dago Jesusen osoko presentziarik, baina bai bere izenean alkarreak daukan berezitasuna. Lehenengo eta bat, Jesusen izenean alkarre, Berak esan euskunez. Jesus Berak esandakoa dogu: "*Zuetariko bi edo hiru alkarren zareen lekuan han nago ni euren erdian*". Hau ere egote berezia da, ez bakarrik legez meza-eguna danean; baita edozein egunetan bi edo hiru Jesusen izenean nonahi alkarren garanean be bai, bere Ebanjelioaren argitan. Hasierako kristinauak ez euken beste apartekorik, Apostoluen bitartez heltzen jakezan eskutitzak izan ezik. Izan be, ez gara oraindik jabetu Jaunaren izenean alkarreak daukan grazi bereziaz. Bizian Gorako batzarretan beti egiten dogu ahalegina Jesus berbiztuaren presentziaz jabetzeari, ondoren isilune eta guzti. Hau une sakratua lez da, Jesusen presentzi bereziari "*ondo etorria*" eskeintzeko. Kantua eta lagunarteko eginbeharrak Jesus Jaunari zor jakozan duintasunez eta gogoz egin daiguzala. Guk auzo baxotxean doguz eleizatxoak eta han izaten genduan mezea; zenbat igandetan egiten ete da ahal dan lekuan alkarre eta, ez abade eta ez diakonorik ez dan lekuan, kristau batzarrak egiten dira. Jakina, hori ez da errosarioa errezatzea lez, edo bestelako debozino batzuen ondoren jardutea. Bizian Goran sarri entzuten da, bertako batzar ondoren: "*Hau niretzat parrokiako mezea baino beroagoa, harmonia gehiagokoa da*". Kontua ERDIKO NAGUSIA Jesus izatea da. Bere Ebanjelioko Bebeari leku berezia emotea. Eta...on egin".

Gaur Agustiñe aurrean,
etxeke bakartadean,
domekan meza eleizan bertan
entzun ezinean.
Auzuneko baserrian
egoera bardinean
bere betiko lagun zintzoa
triste samarrean.

Agustiñek bere etxean
biak alkarraz batean
eta zein pozik Jesus erdian
alkartasunean.
Argitxo bi mahai gainean,
Ogia erdigunean;
eurak pozik ta Jesus pozago
domeka goizean.



BIHOTZA POZTU DEUST

Halako egun baten ustebako deia:

- Marisa, neu naz Goikoetxeko Joxpa. Egund on aspaldiko, gaur triste sentitzen zaitut.
 - Bazenki zelan sentitzen nagan. Jota nago, barrutik ilun eta makal, jota.
 - Zer ba? Zer jazo jatzu?
 - Ezer be ez. (Eta negar alarauka)
 - Marisa, kontuz! Beste "baltz" hori jabiltsu inguruka, zapaldu eta zeu beragandu nahirik. Zuk zeuk daukazu Jesus zeugaz, baina ez deutzazu jaramonik egiten. Hain maite izanda, zelan ez zara zabaltzen Beragana? Zeugaz daukazu.
- Eta Marisa isiltzen, isiltzen doa... isilaldi luzea Joxpak: - Zer, isildu?
- Bai, pozik, bazenki zein bakez eta pozez itzi nozun! Eskerrik beroenak. Hemendik aurrera badakit norengana jo bake bila.
 - Marisa, ni barik, Jesus Bera izan da baketu eta poztu zaituana. Badakizu hemendik aurrera norengana jo. Nik zuri lez, zuk egin bardin beste bateri. Ikusiko dozu zein pozik.

Sarritan ez da beharrezkoa
osagile jakituna,
hobe auzotar bihotz haundiko
adiskide fededuna.
Sufrimentuan erdibanaka
egiten dauan laguna;
holango batek daki ondoen
arintzen gurutz astuna,
bion artean sartzen dalako
Jesus hain maite gaituna.



JOXEFINA AUZO-MEDIKUA

Gitxien uste danean, hor baztarren baten aurkitzen da lore polit bat, usain gozo eta guzti. Begi-bihotzak pozez beteten deuskuz. Gure baserri aldean be zenbat holango "lora" ikusgarri eta usaintsu! Zenbat kristau zintzo, asko jakin barik, on egiten apal eta isil. Huskeriak diralakoan, erdi lotsaz.

Bazan Joxepainazi izeneko bat, auzoko gaixoen eta sufritzen egozanen ondora behingoan hurreratzen zana. Auzoan bizi zan edade haundiko gizonezko bat, bakarrik bizi zana. Burutik hasita beheraino, bizar eta abar... etxeko baztar guztiak iguingarriz josita. Gure Joxepainasi ezin da egon beragana hurreratu barik. Bai pozik hartu mutilzahar horrek etxean. Haundiagoa zan Joxpainaxiren poza, fintasuna, hasi goitik eta beheraino garbitzen.

Auzotarrak arduraz, zenbat ordaintzen ete eutson. Noizean behingo bisita hori ez eukan izteko Joxepainixik. Gero eta pozago ebilen; gerotxoago lagun bati esan eutsanez, Jesus Bera Kalbarioan sikatzen eta lehortzen zihardula uste eban. Honek barrua pozez beteaz, ordaintzen eutson. Handik laster bere antzeko lagun bat aurkitu eban, eta biak jo ta su. Barruko iturritik poza pol-pol eriola ebilen. Espiritu Santuaren ezustekoak!

Auzoan eukan Kristobal
mutilzahar petoa,
benetan ketoa...
hari bizarra kentzen
baeukan nahikoa;
Oskolak ebagi ta
goitik beherakoa...
Jesusen izenean
eta doangoa;
holako asko balego,
zer negozioa!



Hori ametsa, Maite,
zure bihotzean,
hori egitean,
Jesus Bera dabil gaur
gu bion atzean.
Izango dogu lagun
Jesus otoitzean.
-Zelan sentitzen zara
nire ametsean?
-Zer poza pentsatzea
alkarren antzean!

Dakidana nahiko da
gustura egina,
hau poz irakina!
Sarri errez jarten da
atxakiz ezina.
Joxepik ondo daki
zelan kendu mina,
edozeinek ez daki
Joxepak adina,
sarri eginda dauka
horren esamina.

MARIAK ABADE BARRI BAT INDIAN

Atalburuan aipatu dogun hau harritzekoa benetan, ezta? Harritzekoa, baina egi santua. Maria baserri behartsu bateko etxekoandra alargun pobre bat zan. Halako egun baten, domekaz mezara joan zan, eta papertxo bat aurkitu eban jezarlekuan. Aita Jesuitena zan, Indian euker seminario bateko barriak zabalduz. Abadegai bat eukela, baina nahi eta ezin aurrera jarraitu. Pobretasun gorrian bizi zirala etxean. Ea norbaiten laguntzaz urteten ba eban aurrera. Mariak egun haretan ez jan, ez lorik ez eban egin. Baina hurrengo goizean argi eukan: Abadegai hori neure kontura. Diru apurak emoten eutsoena zertxobait gizendu eta eukanetik zertxobait aurreratu ezker... Indiarainoko bideak urratu ebazan, eta horra baserriko eskatzera karta bat, gaztearen argazkia izen eta guzti. Mirariak egin behar izan ebazan hilerokoa zaintzeko. Urtea joan eta urtea etorri, abadegaia morrozko eginda. Hamaika mosu bero Mariak bere kontura hartuta eukan gazteari!

Eta 22 urteraino heldu zan gaztea, eta Maria hil egin zan. Mariaren samintasuna benetan haundia izan zan. Baina hori be Indiatarraren alde. Honentzat be bihotzekoak emoteko lain izan zan. Hamaika bider ekarriko eban gogora Jaunaren aurrean Euskalerriko baserriko amama pobrea. Zer dan sinismena! Zer dan bakotxak ahal dauana egitea! Zer mirari amama zahartxo, pobre batek hain urrun egitea! Zaharrak ez daukela zer eginik?

Itxura baten ijito antza
gainera tartamutua,
horra Jaunaren aurrean Mari
primerako kristinaua.

Bere diru apurak
horra frutu ziurrak:
Abadegai loratua...
Diruak ezin dau eskuratu
holako grazi-frutua.



Gure Mariak zenbat ahalegin
abade gaiaren alde,
karrera ondo burutu eban
baina ez gero debalde...

Mariak azkenetan
pena haundiz benetan
abade gaiaren galde;
Mariri esker, kristau barriak
Indian hainbeste talde.

EDURNE JESUSI LAGUNTZEN

Amama Edurnek ez dau karrerarik egin, baina bihotzean dauka sarri arduraz ipinten dauan zerbait, batez be auzoko gaixo minduen egoera tristea. Umetatik agertu eban gaixoenganako aparteko joera. Urteak joan ahala, gehitu egin jako joera hau. Hemen dago gaur zahartzaroan, gaixoentzat dakian apurragaz mediku askok baino gehiago eta merkeago osatzen ditu. Gorputzeko nekeminak osatuaz gainera, bihotzak gozatzen daki, beraz baita neke-minak arintzen be. Batean bedarrak, bestean botikak, berezkoa dau Jaunak emondako dohaia. Inor gaixotzen bada, laster jirauko deutso kotxea eta bera joango da gaixoagaz. Etxeratzean, han dago Edurne ondoan, kontuak kontari, noizbehinka errezu batzuk eginaz. Jesusek badinosku gaixoei egindakoa Berari egiten jakola, baita Edurnek egiten dauana be, Jesusek lagunduta egiten dau. Sinismen sakona daukanak daki zer dan indar sekretu hau. Jaungoikoa maitatzearen hurrengoa, edo baterakoa: "alkar maitatzea"; urrezko giltza dau Edurnek zeruan sartzekoa.

Dakidana nahiko da
gustura egina,
hau da ahalegina!
Sarri errez jarten da
atxakiz ezina.
Edurnek ondo daki
zelan kendu mina,
edozeinek ez daki
Edurnek adina,
sarri eginda dauka
horren esamanina.



Jakin, danok dakigu
zer dan emotea
edota hartzea
Kontua da gurekin
Jesus egotea.
Harek argitzen deusku
geure barrunbea:
Jesus berbera dala
aurreko pobrea.
Zer pozgarri dan Jesus
dotore janztea!!!

AMAMA BEHEKO GELAN

Nok esan leiken bere etxean lehengo errezu murmurioak eten barik jarraitzen dauala. Bakarrean eta isilean, baina bai... Errosario santua izan da etxeko guztiak batzen izan dituan lokarri bedeinkatua. Eskaratzeko mahai biribilaren ingurua izan da aurrekoakandik datorren eskola mamintsua bizirik zaindu dauana. Gaur ia-ia ezineko egin da. Familiako batasuna eten da. Bateko telebista, besteko irratia edo eskuarteko "sorgina", etxe baten barruan egon bai, baina bizi: (kontuak esan, bizitzako barriak kontau eta abar luze bat...) Bakotxa bere lagun artera ihesita. Sinismen usainik ez da nabarmentzen senitartean. Mila atxaki alde batera itzita, Petra amamak bereari eusten deutso. Gaueko ordu jakin baten, etxekoak agurtu eta bere beheko gelara: mahaitxo baten kurutzetxo bat, eskuetan errosarioa eta ekin bere betiko otoitzari. Behin Patxi bere ilobatxoak amamari: *"Amama, zer egiten dozu gauero beheko gelara joanda bakarrik? – Amama ez dago bakarrik. 90 hamar urtean eten barik egon da Errosarioko kate santua osorik gurean. Gaur amamak gauero izaten dau zita Jesus lagunagaz etxeko danen partez. Ez dakizu zelango poza eta bakea hartzen dodan; Jesus lagunak zenbat gauza eder esaten deustazan"*. - Eutsi "kate santu horri" hatzamar artean, amama Petra! Jauna zugaz dago!

Gure Petra harrezkero
burumakur baina bero,
Jesus Jaunagaz hartuemonak
barriztau ezkerro.
Tele ta mila jenero
hoberik ez dau espero,
lehenengo Jesus laguna da ta
beste danak gero.



ETXEKO ELEIZA



Ikustekoak gagoz Eleiz bizitzan! “Eleiza” berbea bere sorreran ez zan kristauak batzen ziran lekua, eukaristian parte hartu eta abar burutzeko; kristauen alkartea bera zan Eleiza, kristau alkartea; ez da lekua, alkartea baino. Karmen eta Andres senar-emazteak hona zer asmau eben Espirituaren argitan: Domeketako Mezara ezin joan -zaharraren zaharrez- eta etxetik telebistako euskal kate aurrean, zapi eta guzti ipini, argitxo bi eskinetan eta erdian kurutzetxo bat, eta bere aurrean ogi-zatitxo bi, eta eurak mahai aurrean. Eta Eleizan balegoz lez, dana bardin, euren kristau abadetza ospatuz. Aitita-amamen poza! Eleiz lekuan lez sentitzen ziran. Izan be, lekuak ez dau ezer santutzen, sinismen-egintza sakratuak baino. Gainera, ez dogu esaten, ba, bateatu guztiok garala abade? Zorioneko atita-amamak, euren abadetasuna gogoratu, Jesus erdian dabela, bere eukaristian partekide. Ondoren alkarregaz meza-denporan bizi izan daberen esperientzia alkarri kontatuz . Hamaika esperientzi eder galdu dogu legearen legeaz aspaldiko gizaldietan.

Karmen ta Andres etxean
biak alkartu batean
eta zein pozik Jesus erdian
alkartasunean.
Argitxo bi mahai gainean,
ogia erdigunean;
eurak pozik ta Jesus pozago
domeka goizean.

Eleiz Amaren lanean
aldaketaren gainean
ezer ezin da ikutu ere
dana pekatupean.
Jesusen jokabidean
eta alkarmaitasunean
Espirituak aska gaizala
Jesus jarraitzean.

GABONALDIAN TXARRIA ERDIBANA

Aintzinakoa da Euskalerrian santuen aldeko joera; jakina “debozino zibila”: batez be Agate deuna eta Gabonak, lotería eta guzti. Meza eta Errosario bako santu-santak gehienak. Baina kanpoan zelango egitarau mardulak. Santuak kontsolatzeko edo...

Gure Lidiak, baserri emakume zintzoak, ez eukazan ahaztuta “Abendu santu honetan”, “Santa Ageda, Ageda...” Goikoetxe baserrian atari eta sukalde beteko taldeak batzen ziran gehienetan. Gitxi gora-behera, santu bako txarri lauren. Eta gero gerokoak... Hango iruntzi eta irrintzi egin beharra! Santuak lagun!

Lidia ez da damu egindakoaz; altareko santuak bedeinkatu dagiezala “etxeke santuak”, eta danei on egin dagitsela. “Egizu on, ez dakizula non”. Izan, barruan ondo gordeta daroena oso ona da, handik ez dator kalterik. Jan-edan ondoren, abots askotara urtengo dabe kantuak, eta santuak be pozago. Eskerronezko bertso pare bat Lidiari abestu eta hor doaz pozik. Eta...holangoa da Lidia, daukanetik emoteko beti prest. Txandako santuak bedeinkatu dagizala Lidia eta bere “debotoak”.

Agate deuna edo Gabonak
Bolunburun mauka-mauka,
gure Lidiak txarri erdi bat
ondo prestauta beti ohi dauka.
“Txotxotxu” eta santu zaleak
ondo beteta zer zaunka...
kaza txakurrak kate betean
atarian alarauka...

Txarri erdi nahiz txarri osoa
Lidiak nahiago ikusi,
eta ez etxe ta auzotarrak
beti musturka itsusi.
Lidiak badau nahiko errazoi
eta zuk ez inoiz itzi!
Txarri osoa ondo gobernau
eta zeu ez tranpan jausi.

Gabon loteri onena merke
Bolunburun mauka-mauka,
gure Lidiak txarri erdi bat
ondo prestauta han dauka.
Gabon bezperaz, Santa Agatez
ondo jan-edanda, hanka...
Lidia laster kuadrila honek
izendatu baietz santa.





Asteroko topaketa

Aspaldion persona nagusiak egoitzetan alkartu dabez, euren zerbitzu bereziak emoteko asmoz. Hemen Zornotzako Orueko Egoitzan 140tik gora dagoz herri askotakoak. Nagusien hurrengo mailakoak dabiz –Bizian Gorako anai-arreben barri dakit batez be- aurrekoen artean laguntzen, familikoak balira lez tratatzen. Astean behin ospatzen dogu Meza Santua. Hor batzen gara hainbat Bizian Goratarrak –Euba eta Zornotzakoak- barrukoekaz batera Eukaristia ospatzeko anaitasun beroan. Ikustekoak dira euren arteko agurrak, besarkadak eta abar alkartzen diranean. Eta zenbat kontu... Senideak dira ala? Bai eta ez, odolez ez, baina bihotzez eta fede argitan bai. Sarri lora txortatxoak banatzen deutsez edo goxokiren batzuk. Kantuz, otoitzez eta eurai zerbitzen parte hartzen dabe. Egoitzan dagozanentzat oso pozgarria da ospakizun hau, ez bakarrik bertan dagozanentzat, alkartzen diran guztientzat be bai. Kontua zera da: Ospakizun honen ardatza eta nagusi Jesus Bera dala; eta Bera dagoan lekuan beti dagoz bakea eta poza. Ez dakienak balekie...

Hemen Oruen gure etxean
 dogu asteroko jaia:
 barikuero arratsaldetan
 prest gaixoentzako mahaia.
 Eukaristian Jesus gurekin
 benetan egun alaia,
 Jesus Jaunagaz eztaia.
 Jesus hartuta gaixoak kantuz
 hauxe da Jaunaren nahia,
 guztiok fedez sentitzen gara
 arreba eta anaia.

Zornotzan eta Euba aldean
 talde bi Bizian Gora,
 txiki ta gitxi, jente bizia
 zelango poz ta ganora!
 Otoitz ta kantuz, hain arin doa
 mahai inguruko denpora
 ikusten danez, gustora...
 Irribarrea ta besarkadak,
 sarri goxoki ta lora,
 barriren barri noiz alkartuko
 pozik alkarren ond

“EGIZU BERBA BARRUKOAGAZ”

Jesusen jarraitzaileak: 12 apostoluak eta herriz herri jarraitzen eutsoen gaixo eta enparau, liburu bakoak ziran. Hobeto esateko, bat bakarra: BIBLIA. Biblia bizia eurakaz euken eta nahiko. Eta harritzekoa: jakituntzat egozan idazlari eta agintedunak Jesus aurrean erabilten eben eta ez irakurten, ez idazten ez ekienak baztarrik baztar jarraitzen eben euren salbatzailea, zeruko Aitak bialdutakoa. Jakitunak eurak sentitzen ziran maixu, eta Jesus deabruak hartutakotzat, sasaiprofetatzat euken. Jesusen jarraitzaileak pekatari sentitzen dira eta Jesusengan aurkitzen dabe onartzen eta salbatzen dabezana. Jesusen Aita ez da buruz onartzen, bihotzez baino.

Holakoa zan Bittori. Bizian Gora alkarte baten topo egin eban Jesusegaz.

Jesus aipatzean, pozez gainez egiten eutson bihotzak. Jesus zan bere bihotz erdiko jaun eta jabe. Behin bere semeak gazte sasoikoak korona birus hartu ete eban edo... Urrunera joan behar eta estu eta larri. Halan be bigarreanean urten behar ebanerako osasuntsu. Bitartean Bitori amak bai ederto bihotzetik bihotzera erakutsi Jesusen bideak bere semeari:

“Seme, egin al dozu berba barrukoagaz?” Jaunaren eskuetan jartzea dala bake-biderik sakonena. Nok daki zer dan onena? Zer etorri leiteken ondoren? *“Zu bihotz zabalik egon, Berak dakiz bideak eta orduak”*

Amaren ahaleginak semearen barruko ilunak argitzen eta bihotzeko larriminak baretzen. Osatu ondoren mutilak: *“Ama, hau zer da? Baina zelan izan leiteke hau? Amak bere esperientzia kontatzen eta semea amagandik sinismen esne bizigarriz sendotzen eta sendatzen...”*

Amak ba eukan Jesusen ezaupide sakona eta pozgarria, eta semeari “mama espiritual gozoa” emoten... Aita Santu Frantziskok argi dinosku: *“Pandemiatik aldaturik urten behar dogula bertatik, bai kristau lez, bai eleiza lez”.*

Zorioneko pandemia hau egia balitz! Anaiago, fededunago, pozez eta biziz beteago urtengo genduke.



Umetasuna, txikia haundi
Jainkoaren esanera,
umekeria, haundia txiki,
Jauna geure legera...
Jakituna Bittori
badaki zer dan hori
aldrebeskeria aurrera...
Bittori ama asko balegoz
gaur ez hainbeste histori.

JESUSEN IZENEAN

Jesus berbiztu ondoren, bere jarraitzaileak ez euken beste izenik: "Jesusen jarraitzaileak", berak erakutsitako bideetatik jarraitzen ebenak. Geroago "Eleiza" izena hartu eben. Baina kontuz, eleiza ez da lekua, alkartea baino. Eta Jesusen alkartea leku askotan eta modu askotara izan daiteke . Holango eleiz-batzarretan agintari gitxi behar da; arduradunak bai, bakotxak bere ardurea euki behar dau-ta. Aita Frantzisko Bergogliok argi dauka: *"Jesusek arduradunak ipini eutsozan eleizeari, baina zerbitzeko; eta denpora asko baino lehen, agintari maila hartu ebenak, euren jantzikera, titulu, bizikera eta guzti, agintzen gehienak. Handik laster zerbitzariak agintari bihurtu ziran, ia garrantzi gehiago izan dau eleiz agintarien ordenak betetzeak, anai arteko arauak eta maitasunezko hartuemonak baino.* Orain adarretatik sustraietara jatsiteko joera dago indartzen. Hona hemen esperientzi txiki bat. Bazan Pedro Mari izeneko baserri gizon bat, kristau talde baten partekide izateko aukera izan ebana. Bera gaixorik egoala ta, bere baserria prestau eban, eleizatxo horren topaleku izateko. Hamabostean behin batzen ziran dozena ta erdi bertan mahai baten inguruan, mahai gainean kurutzetxo bat, kandelatxo bi eta BIBLIA eder bat jarrita. Horra baserriko eleizatxoa: bizia, beroa, alkartekoa. Denpora asko baino lehen, eurak euretara joan ziran batzarrak berotzen eta sendotzen. Berez bihurtu zan Biblia liburua taldearen bizi-liburu, haren argitara bizitza zuzentzeko asmotan. Espiritu Santua aspaldiko partez gehiago entzuten da, Jesusen presentziz baserriko kristau batzarra sendotzen hasten joian. Entzun bai, baina ez ziran aurretiz konturatu zenbateko indarra daukan Ebanjelioak, egiten dogun eleiz bizitza barrian bizitzeko. Benetan gura izan ezkerro...



Jesusen izenean
hilean birritan,
Baserrian alkartuz
sinismen argitan.
Jesus Bera eta gu
pozezko ezitan.
Holango topaketak
balira sarritan,
Eleiza biztu baietz
denpora gitxitan.


“EGIN BEDI NIGAN ZUK DINOZUNA”

Jaungoikoak gure alde eta onerako nahi izan dauan guztia egin bagendu...Edota egiten itzi bageuntso Jaunari, edota egiten lagundu bageuntso. Jaungoikoak egin dau gure onerako gura izan dauan asko, baina... egin barik itzi dauana? Nahi izan dauan guzti hori indarrean balego... Nor errudun?

Gure kristau sinismeneko egintza harrigarriak nundik edo zelan hasi eta egi bihurtu dira? Bibliak dinoskunez, emakume zintzo apal batek Jaunagan uste osoa ipini ta baietz biribila emon eutsan. Hortik Mariaren haunditasuna. Aingerua bialduaz, Jaunaren asmo ederrak Mariari agertuz, eta guzti hori bidean ipini eta gauzatzeko, Bere baietza behar ebal. Halako baten, Espiritu Santua jatsi, eta haren bitartez, egi zoragarri hori Jesusegan hazur-aragiz jantziko zala... *“Egin bedi nigan zuk dinozuna”*. Nik ez dot ulertzen, *horregaitik “Zuk dinozuna eta nik ezin dodana Zu barik”*...Eta Espiritu Santuak beste hainbeste erantzuten deutso Mariari: *“Nik be ezin neike egin zeure bitartez izan ezik”*. Amets eder hori haragi bihurtzeko beragan, emon eban zorionez baietza. Alkar behar Jaungoikoak eta Mariak, zuk, nik, harek...

Hori da Jaunaren bidea, hori da guk mirari harrigarrietan nahiz txikietan dogun bitartekotasuna. Eta ziurtatzeko Jaunak gure alde egin dituanak sinisten, onartzen eta partaide izateko berbea emoten jakin izan bagendu?

Geure burua txiki ikusten dogula? Ez dogula hori ulertzen, ezin dogula burutu...Hori Jaunaren eskuetan dago, Berak bakarrik daki zelan, noiz eta zergaitik. Gure baietza emon eta bidean jartzea da kontua. Hain zuzen be, **“Zaharren Talentua”** zirriborro honeek horretarakoxe dira: Jaunak munduko gure bizitza zoriontsua izatea gura dauala, eta horretarako gure baietza behar dauala... Eta hasi Mariagandik eta Mundua, Eleizea eta abar, Jaunak eta guk, “buztarri santu” hau “botaka” barik baiezka jartzen bagara... Ea geure arteko “maixu-maistrak” (jubilatuta birziklatuak) zer dinoskuen.



**Maria, Jainkoak zaitu
Zu beretzat aukeratu.
Graziaz bete zaitu gainezka
ta Jesus gizatu.
Zure baietzak gauzatu:
Gu Jesusengan salbatu.
Hartu Zeuk gure baietza
eta benetan jokatu.**

MENDIKO TXORIA

Lehengo baserri aldeko bizimodua eta gaurkoa ezagutu doguzanok beste mundu batera aldatu gareala dirudi. Lehen egun osoa lan eta lan, etxean orduoro eta soloan torreko kanpai hotsera, txapela kendu, lanean gelditu eta Jaunaren aurrean otoitzean burumakur eta bihotz samurrez... Gaur badago inguruan bestelako hotsik eta marrurik. Etxean bertan irrati edo telele, bitarterik be ez isilik, batean ez bada bestean hizki-mizki ugari. Ez gaurko jentea fedebakoa dalako, baina bai fededun izateko ez ordurik, ez biderik eta ez modurik ez daukalako. Eta...domeketan mila atxaki mezarako.

Gure Txomin bestelakoa zan umetatik; eta bizitzan aurrera joan ahala, batez ere Bizian Gorako iturriko ura zurrupatu ebanetik gora. Egunero atari zabalean Biblia haundia zabal zabalik ebala ordu beteko otoitzaldia. Behin baten gizon batek holan ikusita, badinotso: "Zer Txomin, karrera barriren bat ala? - Ez dok liburu hau ezagutzen ala? Ona hago hau ezagutzen ez badok. Neu be oraintsu arte horretan egon nok, baina... Hau ez dok holan, halan baino. Neu be oraintxe jausi nok astotik, San Paulo zalditik lez. Eta bera lez Jesusegaz topo egin juat". Hemen be "astotik jaustea, kontuan jaustea da".

Gitxien uste dogun lekuan
aurkitzen dogu altxorra,
Txomin Mendiko gizon zintzoa
Jesusen testigu horra.

Egarri dana sarritan dabil
iturri on baten bila,
kristau zintzoa beti izan ohi da
iturrizale abila.

Baserri gizon zuzen ausarta
genduan Txomin Mendiko,
kristau bizitza zelan hobetu
ez eban errez itziko.

AGIRIKO TESTIGUA

Lehengo kristaua oraingoaz alderatuta, diferentziak Txomin bikote honek laster azaleratu ebezan. Batzarretan sarri joten eban Txominek kukurruku: “Sinisten dot” esan eta kantau bai sendo eleizan, baina kalean bai gero?...Sinistu bai gero?”. Gaur egun gizonezko bat Jesusen agiriko testigu izateko arpegi gogorra euki behar da, eta Espirituaren eragina aintzat hartu. Suertez, Txomin Mendikok ba eukan izenez eta izatez bere erako inguruko gizon bat. Benetan zintzoa eta berbakoia, bai Jainkoaz eta bai hurkoaz. Eskerrak Txomin biak alkartu eta bide barrian sartu zirana; konturatu orduko hasi ziran agirian testigantza emoten. Domingo berez zan isilagoa, lotsorragoa. Txominek zabaltzen eutson bidea.

Gau baten biak prestau ziran auzoko bati hospitalean gau osoan lagun egiteko. Gero lagunartean euren esperientzia kontatzen eben: “Gau luzea izan da, neketsua, baina etxerakoan poz bat bai!!!, Hurrengo egunean be joatekotan gelditu gintzoazan”. Beste baten, Bizian Gora hasikeran, badinotsiet: Txomin-Domingo bikoteari: “ Etorri gura badozu, gaur egun osoko jardunaldia daukagu Larran”. Bigarren arnasaldia baino lehen erantzuna: - “Bai horixe. Etxerakoan badinotsiet: - “Neuk eroango zaituet etxeraino kotxean”. – Ez, ez, hemen tabernan dagozanakaz saltsa pixka bat atera behar dogu. Bai laster saltsa usaina zabaldu – Hona hemen gure Txomin parea, gaur mendian txoritan edo izango zineen...-Ez ba, Larran egon gaituk egun osoan, hoba pare bat egun izan baziran”. Han urten eban saltseak. Txominek ohiturea eukan egunero gosaldu eta ordebeteko otoitzaldia egiteko atari zabalean. Hil eta laster, auzotarrak alkartu, eta batek BIBLIA haundia erdian hartu eta hor doaz auzoko ermitara , eta meza ondoren bertan aldare gainean itzi eben Txomin bien izenean. Gaur be han dago Mendiko Txominen atariko BIBLIA altara gainean. Bai, gaur be han dago auzo-ermitako altare gainean BIBLIA, auzotarrei deika. Zelan edo halan, hor neurtzen dira gizakiak, bizitzan zehar eginak eginda gero, jubilazinoko urteetan be aurrera euren arrastoan. Bestaldetik be deika jabilkuz antza...



Gizon isila eta apala
Errekondoko Domingo,
kristau bizitzan ez eban hutsik
bere kontura egingo.

Baserritar bi kristau bidean
hor Jesus Jaunaren jarrai,
Txomin ausartak Jesus maite dau
beste Domingok ere bai.

Modu batera edo bestera
bitsuak dira testigu,
baina inortxo ez da gelditzen
mundukerian katigu.

JESUSEN LAGUN EGIN NAZ

Kristauaren fede bizitzan dana ez da bardin. Atal batzuk oinarrizkoak dira, eta gainera batak besteagaz lotura hautsi-ezina dauke: bata hausten bada, danak berehala hausten dira. Oinarria Jaungoikoa Bera da, guganako maitasun neurribakoak eraginda, Jesus bere Seme bakarra emoteraino maite gaituana, eta bialdu euskun geure antzeko gizaki eginda. Honek bizia emoteraino maite izan gaituala. Eta guzti hau Espiritu Santuaren egitekoa dala, kristauen bihotzak dohai ezbardinez jantziaraz. Eta guztiok Jesusen bizitzaren partekide egin gaituala bateoan, eta Eleiz alkarte bat-berean senide izateraino.

Jakin, ikusten danez, JESUS da hemen ardatza eta guk Beragaz dogun hartuemonan, mahats aihenak bere hondoagaz lez, hilibiziko hartuemonan. Batek baino gehiagok bizi dabe esperientzia hau. Hau da kristau jakituria Jesusen ebanjeliotik aterata. Oraintxe bai, gero eta gehiago jabetzen doaz kristau laikoak, sinismen-bizitza ez dala buruz jakitea, bihotz hondoan bizitza barria baino. Zorionez gero eta laiko gehiago doaz Jaunaren Berbeaz jabetzen. Jesusegaz lagun egiteak hau adierazten dau: Jesus bizi dala, Aitak berbiztua, eta Bera dala gure fede alkartearen mahaiburu. Eta hau dana doan egin daukela Aitak, Semea emoteraino”. Hagaitik kristauaren ezaugarria poza da, bizitzako betetasuna da, geroari begira Jesusegazko batasunean maitasunez oinarrituta. Hau da gure itxaropen eta uste osoa. Zelan ez kristaua pozik bizi? Halako poziturrria dauka bihotz erdian! Hogeitaz urte Bizian Gorako esperientzia bizita, ez da harritzekoa honelakoak lotsa barik eta pozez gainezka entzutea: “Ni Jesusegaz lagun egin naz”. Pozik gura dozu? Erromako Aita Frantziskori entzun: “



**Amaren sabelean
sortu nintzanean,
aurrez nengoan, Aita,
zure bihotzean.
Izenez deitu zeunstan
maitez jaiotzean,
eta eusten deustazu
arnas bakoitzean.**

**Zenbat bider jaso dot
Zure dei isila!
Aukerak izan ditut
mila eta mila.
Orain jarri nozu
Aita, zure bila,
Zeurea nozu eta
Zeuretzat nadila.**

**Zuk, Aita, deitu eta
nik zuri erantzun,
bizitzan egin gara
alkarren ezagun.
Alkarrentzat izanaz
zer poza daukagun,
ez dot besterik behar
Zeu bazaitut lagun.**

ATSEGINETIK POZTASUNERA



Hainbeste Bizian Gorako anai-arreben kristau esperientziak erabili doguz aurreko zirri-borroetan. Sinistu ezinekoak edo neuk asmatutakoak izango dirala uste izango zenduen behar bada. Ez ba! Sarri euren ahotik taldearen aurrean edo bakarrean entzundakoak dira. Jesus Berak Ebanjelioan dinok honako honeek: *“Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza honeek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jente txikiari agertu deutsezuzalako. Bai, Aita, holan izan dozu gogoko”*. Izan ere “karreradunok” dakiguna esaten dogu sarri, baina hainbakoak bizi dabena eta egiten dabena. Aitaren nahia holan dala dino Jesus Jaunak. Hemengo jakitea ez da buruzkoa, bihotzezkoa, bizitzakoa baino. Eta laikoak be ebanjelizatzaile egiten ditu Aita Frantziskok: *“Ebanjelizatzea Jesusegazko hartuemoneko esperientzia pozik eskeintzea da. Jesusen irudiaren freskotsuna eta lilura berreskuratzea; ez da halako dotrina bat zabaltzea, Pertsona horregaz topo egitea baino”*. Eta praktikarik eta patrikatik emoten dan testigantza langorik ez dago. Jakina, gaur laiko batek bere ingurutik datorkiozan lokarriak gozoagoak dira, baina azalekoak. Aita Patxik argi eta garbi dinosku: *“Plazerra zentzunetan gelditzen da, poza, barriz, bihotzaren erdira jasten da; pertsonaia bategaz topo egitetik sortzen da”*. Eta Eleizearen egitekoa hauxe da: *Jesusen irudiaren freskotasuna eta lilura berreskuratzea; ez da halako dotrina bat zabaltzea, Pertsona horregaz topo egitea baino*”. Egia esan, gaurko munduak hori behar dau: Jesus aurkitu eta Beragaz adiskide izatearen zorientasuna beragandu. Hortik dator kristau laikoaren testigantza. Hori da laikoak munduaren erdian daukan eleiz testigantza emotea.

Ez praile ta ez abade
inor ez da Eleiz-jabe,
Jesus bakarrik da Eleizaren
oinarri-zutabe.

Hainbat dira laiko trebe,
lantzen dabiltz eten gabe,
kristau eleizan ardura osoz
jokatu nahi dabe.

Eleiz Amaren pobreza
inok lagundu nahi eza,
goitik agintzen, dana konpontzen
gehienbat apeza.

“Zuok, kristauok erreza,
eta ondo entzun Meza;
bakoitza bere lekuan jartzen
ez dala erreza”.

Aita Santu eta Gotzai,
praile, apaizak ere bai;
maila berean dira laikoak
Eleizan osagai.

Badira grazi ta dohai
Jaunak emonak nolana;hi;
gainerakoan Eleiz Amagan
danok gara anai.

HAU BESTE GAUZA BAT DA

Lehenago sermoietan kontu eder asko entzun bai, baina hori bizi bihurtzen ez dan artean, sinismen hutsa da; baina pixka bat gustatzen hasi ezkerro, gero eta gozoago eta betegarriago egiten da. Espiritu Santua dabil hor bitartean. “Nok esango euskun lehenago guri auzoko gixajo batengana joan eta ulea ebagi, oinak garbitu eta oskolak ebagi eta abar eta abar egingo geuntsazala?. Ez berak eskatuta, ezta honenbesteko bat ordainduta be. *Barrutik* beste batek eskatu ezkerro... Ez lotsarik, ez bildurrik. Biztu dan Jesus Jaunak erakutsi eta biziago deuskuz munduko egirik pozgarrienak geure esperientzi argitan”.

Norbera bila ibili ezkerro, goiz edo berandu, holan edo halan fede-argiz bizitza osoa beste modu baten ikusten da. Jesusen bila hilobira joan ziranei aingeruak esandakoa hemen be: “*Ez dago hemen, biztu egin da*”. Hor hildakoa, baina biztu dana nunahi dago. Jesus berbiztua agertu jaku, ez arpegiko begiz ikustekoa, bihotzez bizirik sentitzekoa eta jarraitzekoa baino. Holakoak entzunda, zelan ez Jaunari eskerrik beroenak emon?. Trabarik ipini barik, bila dabilenari -berak ez dakian orduan eta moduan “agertzen jaku”. Haundia da gero hau: “Jesus Jaunak ezin dau hau edo hori egin, geu lango *astotxo* gainean joanda izan ezik. Atzera begiratuta, Jaunari eskerrak eta goralpenak emotea besterik ez dago”.

“Kristau jenteak -gehien batek- ez daki hau zer dan, geuk lehenago lez. Ni mendian bizi naz, eta pozik, traba gitxiago Jaunaren eta gure bitartean ipinteko” Nok esango euskun guri lehenago Benidorren baino Angoston “kristau senide” alkartean pozago egoten ginala”. Ez dagoala miraririk? Astoak hankaz gora ibiltzen ikustea behar ete da horretarako?. Hamaika ibili gara hankaz gora -garragarrika edo- eta orain bide barritik Jaunaren jarrai.

Adiskideok, holango asko entzuten dira gaurko “kuadrilan”. Jaunaren presentziaren ezaugarriak beste gauza bat dira. Bedeinkatua izan bedi Jauna orain eta beti!. “Panemia honetatik urten daigula hobetuta”, hau opa deusku Frantzisko Aita Santuak.



Entzun Jesus Maisuari:
“Nagusi da zerbitzari”;
kristau dala ta zerbidu behar
batak besteari.
Dohaiak dira ugari...
Kontu asko daukanari...
oker jokatzuz egiten jako
kalte Eleizari.

Urtez adin betekoa,
ez naz atzo goizekoa;
baina gero eta egarriago
dabilkit kolkoa.
Sinisten dot Jaungoikoa
kristau naz ni betekoa;
oraindik ez dot Jesukristogan
sinisten nahikoa.




Agur, laster arte. Ni pozik noa!

Gizonezkoak berez gara barruko kontu horreek isilean gordetzekoak. Zergaitik ete? Baina bai, baditut banaka bat, eta ez txantxetakoak. Hor doaz hiru-lau gogoan hartzekoak.

Jose Antonio adiskidea, gudaketan bereak eta bi jasandakoa. Kostata, baina gorrotoak menperatu eta Jaunagan bake gozoa txastatu ebana. Gitxien uste ebanean heldu jakon azkena. Negualdeko gau baten dei larria gaueko orduetan: Joxe Antonio azkenetan dagoala eta ikusi gura nauala. Hor noa itsumustuan Galdakaora. Hor dago gure laguna ohe ganean irriparez. Zelango besarkada estua eta maitekorra alkarri! Ohe ganean jesarrita isildu ezineko berbaldia: "Eskerrik asko Bizian Goraren bitartez gizon barri egin nozuelako. Ni laster noa eta pozik joan be. Jesusegaz aspaldion daukadaz kontuak eginda. Ez nigaitik negarrik egin, pozik noa. Zuek ere pozik bizi. Nik ez, Jaunak egin ditu nigan egitekoak". Eta bihotza esku artean hartuta estutuaz, barruko maitasuna ez ekian gehiago zelan agertu. Eta eskerrak emon eta eskerrak emon. Zenbateraino egin zan Jesusen lagun! Ezelango kezka barik hustu eban bere bihotza. Poza eta bakea, uste oso-oso Jaunagan jarrita. Nik ez nekian zer egin, Jaunaren maitasun sugarraren ondoan berotu baino, eskerronez bihotza dariola. Berari lagunduz, "eskerrik asko" abestuz agurtu ginan. Adiskidetasunak bakarrik ahal dau heriotzaren iluntasuna argitu. Hau kristau umetasun miragarria! Harrezkero Jose Antonio gogoratzean, pozarren gora begiratu eta beragaz batera Jaunari eskerrak emoten deusadaz. Bere hileta mezan bertso txo hauxe abestu neutsan:

“Jaunak deituta ni pozik noa;
agur emazte, senide,
maite zaituet ta pozik bizi
Jesus guztion pozbide.
Agur, oi lagunzaharrak,
Bizian Goratarrak,
bihotzeko adiskide!
Agur ta laster alkartu arte
Aitarenean mahaikide!”

Geure argirik ez daukagu ta
gatoz argi iturrira,
zabalduta daigun geurea ez dan
Zureganako distira.
Zure Espirituak
barrutik argituak
zure testiguak dira;
Isur egizu zure argia
gure bihotzen erdira.



Asmo zuzenak egintza onak
dira hemen beharrezko,
bestelan ezin izan gu, Jauna,
munduan zure ordezkoko.
Argi eginaz urtu,
eta argi bihurtu,
dana ez da bustinezko;
Zeuk esana da; “Jainkoarenzat
ez da ezer ezinezko”.

HA ZAN GIZONA!

Bai, benetaan! Tolosarra, Bizian Gora jubilatuen mobimentua ezagutu ebanetik gora, handik Ebanjelioko mama gozoa xurruptzen bizi izan zana. Umore oneko gizona, adarjotzaile fina, jainkozale jatorra. Azken pare bat urtetan ibili ezinean egoan, eta haren egarria. Ez noa gehiago neure kolkotik ezer esaten. Berak idatzi eustan azken gutuna. Gizon hau gorputzez haundia bazan, bihotzez haundiagoa. Zeuok ikusi eta bere esperientziaren eraginez, pausotxo bat aurrera.

Neure lagun Martzel maitea:

Notizi bat eman behar dizut: ezbeharra izan det: Erori eta buruan golpe haundi bat hartuta nago, hamabi puntu hartuta nago; neure burua lurrean ezagutu nuen. Ez dakit zer izan nuen, Jainkoak lagundu zidan.

Belaunean eta besa-buruan golpe haundiak hartuta nago; lehenaz gainera, belaunetik gaizki nabil. Atzerapen haundia eman dit; ni ez nago lehengua. Badaukat zeinek lagundua, Jaunari eskerrak. Gainontzian ondo bizi naiz, neroni bajatu naiz, bildurra bezela daukat, ez dakit nola esan.

Martzel, Zuk erakutsitako ejenpluakin bizi naiz; orain konturatzen naiz fedea zer laguntzaile den, ona eta garbia: goiz-arratsetan neure oraziuak zure liburuetatik; aste guztian; eta igandean parrokiari Jauna hartuz; gauza naizen arte, horixe da nire bizimodua. Ez dakit zerk laguntzen didan, oso kontentu bizi naiz; askotan ohean ere bertso zaharrak kantatzen hasten naiz. Nire ezbehar guztiak ontzat hartuta nago.

Bueno Martzel, nik zuri zor haundia dizut, mila esker Jainkoari zu ezagutzeagatik. Ezin det inola eskertu, Martzel zu eta Mila eta Maria Anjeles eta beste Bizian Gorako anai-arreba asko neure bihotzean zaudete beti. Aber noiz ikusten degun elkar. Zer gauza ona den zoriona eta bakea, gutxien ere norbere sukaldean.

Martzel, zorionak Mila eta Maria Anjelesi, hirurontzako zorionak eta urte askotako Jainkoari eskerrak, oraziuarekin batera: **Jainko Jauna, barkamenaren eta salbamenaren iturri zaitugu: entzun bihotz onez gure otoitzak, eta Andre Mariaren eta santu guztien laguntzaz emaguzu bizipoza, itxaropenaz eta zoriontasunaz. Amen**



Urteen urtez naz zaharra,
hau ez da ez gauza txarra;
gaztetarik nahi ez dauanak hil
hau bide bakarra.

Nahiz izan jente azkarra,
hemen joten dau baztarra,
jakinak jakin, eginak egin
makurtu beharra.

Lohikeritik garbituak
eta goitik argituak,
horra gizaki bihotz garbiko
bizibarrituak.

Jaunaren Espirituak
ditu horren merituak;
Aitita-amama asko ditugu
gaur birziklatuak.

Ume txiki antzera
Aitatxoren esanera,
zaharbarrituak beti hartzen dau
Jesusen aukera:
Bizitzako gorabeherak
eta heriotza bera
onena da-ta bete dedila
Aitaren nahiera.

AMAMA ILOBAREN KATEKISTA


Benetan azkenengo Aita Santuak, batez ere oraingoak, ez dakie zer gehiago esan zaharren kristau bokazinoari buruz. Baztarten baditue, euren erakutsiak eta eritxiak onartu barik, gizarteak sustraiak galtzen ditu, aurreko gizaldi askotako gizarte bizitza eta eleiz bizitza biak euskarri barik gelditzen dira.

Orain urte gitxi, Bilboko Eleizbarrutian aitita-amamei dei bizi bat egin jaken esaldi honegaz: *"Amama, erakutsi egidazu nor dan Jaungoikoa"*. Eta beste bi amamakin joan nintzan Bilbora, Bizian Gorako esperientzia eskeintzen. Nire eginbeharra zer egiten daben agertzea izan zan, baina beste amama biak esatekoak esan ebezan. Zoritxarrez, horretarikoak ez dirala asko. Gainera gaurko bizimoduak beste bide batzuk hartu ditu: aititamamak egoitzetan batu eta eguneroko bizitzatik etenda gelditzen dira, noizbehinka bisitaldi batzuek egitea ez da nahiko. Bai sinismenak eta bai euskal ohiturak eta bizmoldeak sustrai sakonak euki dabez, baina arrisku haundia dago sustrai danak eta onenak galduko ete diran. "Euskaldun fededun" gaur entzun be ez da egiten; txotxokeri batzuk esan, eta nahiko. *"Umearen zentzuna, etxean entzuna"*. Fede konturik ez da aitatu ere egiten. Itaun bat baino ez: Eguberri aldian Jesus ala bere "ordezkoren batzuk? Gaur egun amamak aukera asko daukez ilobekin hartuemonak egiteko, eta aurretiz prestatutako erakutsiak iloben bihotzetan ezarteko: Goiz eta gaueko hartuemon samurrak, ikastolara joan-etorriak, gurasok etxera orduko aukerea, oherakoan... eta amamak eta aititak berezko legez daukezan sekretuak gizaldi asko lehendik datoz, eurentzat bizi-atal osagarriak izan dira. Zorionekoak holango aitita-amamak dabezan ilobak! Aita Santuak pentsaera sakon biziak ditu horrerri buruz: *"Zorionekoak bizitzako azken txanpa hau Jaunaren begiradapean zerbitzen bizi zareenok"*. Ez gero zeuon buruak gitxietsi. Bizitzari azken zerbizu hau emonda joatea, hori da kristau aitita-amamentzat bizitzari agurrik bero eta pozgarriena emotea. Euskaldunok ez ete dogu sustraietara begiratzeko gogorik? Pandemialdia benetan luzea! Etxean, isilean, eta barru sakonera begira hutsunea besterik ez sentitzea...Egia izango al da Aita Santuak dinoskuna: *"Pandemiatik urten dagigula hobetuta"*.

Amamak bai daukala
Keparen ardura!
Dotrina irakatsiz
betiko modura.
Irribarrezka Kepa
iatorko eskura,
alkar besarkatuaz
bai dagoz gustura.

Kepak maite-maite dau
amama Kristina,
Berak erakutsia
dau kristau dotrina.
Ezagutzen dau Jesus
ta Ama Birjina,
Jesusen laguntxo
zan Kepa, jakina.

Kristina eta Peru
Jesusen lagunak,
ez eukan parekorik
euren maitasunak.
Amama ta iloba
Mezan ezagunak,
noiz etorriko Jesus
hartzeko edunak.



AGURTZANE BIZI DA

Esperientziz dakit zahartzaroak beragaz dakarzala mila atxaki, era askotako ezinezak, beherakada neketsuak eta abar. Halan eta guzti be, Aita Santuak *“zahartzaroko bokazinoa”* aitatzen dau. Badala zahartzaro bat, errezegi norberak burumakur onartzen dana. Hain zuzen be, Aita Bergogliok (Frantziskok) *“zahartzaroko bokazinoa”* deitzen deutsona hauxe da: azkenera arte zeregin zehatz batzuk daukazana: Irakurri, lagunei deitu eta gogoberotu, irribarre batzuk egin, txisteren bat kontatu, sufrimentuei erantzuten jakin, halako edo holako asmoren baten alde eskeinduz: aienakaz batera Jesus Kurutzekoagaz bat eginda, etxekoakaz bakez eta umorez bizimodua eroan eta abar. Orduan zahartzaroa argitu, gozatu, arindu eta baliogarri bihurtzen da.

“Zein ederra dan “bokazino bihurtzen dan zahartzaroa”. Holango zahartzaroa bizitzeko aurretiaz be bokazinozko bizitza eroaten ahalegindu behar da. Ez sufritzen zagozanean, ez bakarrik sentitzen zareanean. *“barrukoak”* ez zaitu bakarrik izten. Zeugaz dago, lagunik onena izango dozu zeugaz, gura dozun beste kontu-kontari egoteko, nahizta zeu mutu egon. Horra zahartzaro aberatsa eukiteko biderik onena. Nik hainbat holango amama eta aitita ezagutzen dodaz, Bizian Goran urte asko igarota gero. Zahartzaro luzearen bedenkazinoa aprobetxatzen dozu, eta orduan eroan-errezago egiten jatzu.

Gogora jatort holango amama bedeinkatu bat: Zelan hustuten deust bere *“zahartzaroko bokazinoaren frutua”*. Haren esan beharra, hustu beharra... Busturikoa da, baina aspaldiko urteetan Bilbon bizi da. 97 urte daukaz. Haren esan beharra, egun osoa beterik dauka. Bizi-bizirik dago. Gu guztiokaitik izaten da bere eguneroko Errosarioa, San Juan Pablok hil aurretik irratiz beregaz batera errezatzekoa. Begira zelango argi dagoan: Abertzale fina izanik, lagun batek esan deutso: Hori erderaz dago eta zelan zuk...? –*“Hara, Nortasun agiria be (Carnet de identidad) erderaz daukat eta harek salbatzen nau leku askotan”*. Bizian Gorako guztioi Gabon zoriontsuak emoteko eskatu deust. Hori da *“Bokazinoz zahartzaroa bizitzea”*.



“Gure amamak zenbat dakian,
ez da beste bat munduan...!
Urte askotan pilatu jako
jakituria buruan.
Euskeraz nahiz latinez
nahizta ezer jakin ez,
Maisu ona dau barruan.
Beste munduan dagozanakin
ekiten deutso tratuan.

Aita Santuak maite-maite dau
amama Errosario,
hainbeste urte joanda gero
gogoan dau oraindio:
Eta bere bokazio,
Sufrimentu, orazio...
horra zenbat deutson balio.
Aita Santuak amamari zor:
Gaur Aita Santu Bergoglio.

Oi bihotzeko Busturiarra
egiazko jainkozale,
zuk ahal dozuna egin dozu ta
sobrak neuretzat ta bale?
Gure hartuemona
askorentzat da ona
ez daiala egin kale...
Dana dala zuk Jesus Jaunari
egin otoitz nire alde.




GAURKO KRISTAU ZINTZOAK

Zintzoak ez dira bakarrik bizitza osoan osasunez eta ontasunez ondo orniduta bizi izan diranak. Hor dago untzea: Sasoi onean gaixoak jota, urteak joan, urteak etorri, gero eta astunagoa, eta aurrera umorea galdu barik. Sekrettoa agirian dago: Otoitz zalea da, bere esku-telefonoan daukaz salmoak eta beste otoitz eder batzuk, eta hara jotzen dau egarri danak iturrira lez. Umetatik altare inguruan hezi eta hazitakoa da. Orain abade eskasiak jotako giroan, bera bihurtu da abade eta sakristau, bai parrokian eta bai ingurun daukan egoitzan: gure Jauna eroan, kantuz eta kontuz argitu eta poztu...

Ez deustu hutsik egiten Bizian Gorako batzarretara eta bai ardura haundiz gogoan hartu barruko bizitzaren euskarri izango jakona. Ospitaletan sarritan ebakuntza eta abar egin arren, beti bizirik, beti irribarrez. Gatxari gainera egiteko, egoera larriari gogo onez eusteko, ez da nahiko norbera, hor agertzen da barru sendoaren euskarria, beste Norbaitek laguntasuna. Ez da hileta jotzen ibiliko, ahal dala gatxa bera ere irabazgarri bihurtuz, egotalditxoak etxe ondoan daukan Lagunari eginaz.

Beste abade laiko bat? A zelango aukerea herritxo bakoitzean holango bat edo bi balegoz!



**Gurutzea bai astuna,
norbera makal biguna;
fede argitan ezagutu dau
ondoan Laguna.**

**Agur zahartzaro iluna
ta bakardade ituna;
Bizian Gorak alaitu deusku
aitita alarguna.**

**Bere kristau sinismenez
bizi da itxaropenez,
sarri entzun da deitzen deusola
Jesusek izenez.**

**Gizaki da ta aienez,
baina aurrera kemenez;
zahar-gaztetuak merezi dabez
txaloak omenez.**

**Zaharbarrituen tailerra
hau bai lantegi ederra!
Bizian Gora dogu guretzat
halako aukera...**

**Hor garbitzen da ugerra
eta bizkortzen alperra;
aukera honeik alboratzea
hori da okerra!**



DAGONA DAGO, GU BETI AURRERA

Hainbeste dira hainbeste arlotan borondatez eta amodioarren mesede egiten dabiltzanak... hainbesteren zertxo batzuk amaitu orduko, beste bat edo bi aurrean zain. Eta ezin itzi zeozertxo esan barik, nahizta batzuk alkarren antzekoak izan. Orain zuritzen hasi nazan “artaburu” hau apartekoa da. Honek egun batzuetan Bilbon eta beste batzuetan beste herri bat edo bitan egiten ditu bereak. Astirik ez leku baten kontu asko esateko, astirik ez... Bera ibiltzen da ezagutzen dabenen herri inguruan, jakin nahiez nok zer behar dauan. Fina gizona, beste inor finik bada, eta kontu gitxi. Arazo lartxo ete darabilen edo aurreratu ezkerro, erantzun laburrak eta bihotz haundikoak emoten ditu. Hara bat...: “Dagona dago...honegaz bat gitxiago”. Ordaintzeko konturik zer danik be ez daki. Eginak egin ondoren, gaua gura baino lehenago jausten jakolako kexu. Izan ere, Jesus Jaunaren izenean dihardu lanean eta jakina: Emonak emon arren, emotekoak gehiago gelditzen jakoz. Beti egiten eta beti zorretan. Bai ba, hain dira asko baztarretan eta isilean preminan bizi diranak...Maitasun bidean diharduanak ez dauka neurrik.

Gero eta gehiago dira “diakonoak” eleiz zerbitzaritzan, ardura berezi baten ardurea hartuta bizi diranak, eta oso pozgarri da jokabide hori ikustea kristau laikoen artean. Egitada kaxkarrak ikustek ez dau berak bakarrik ingurukoak gogoberotzeko eragina; zintzoak ere badabe erakargarritasun indarra onerako, Jaungoikoari eskerrak.

Nire adiskide laiko konprometiduak gero eta gehiagora doaz, Jaungoikoari eskerrak. Guk geure bizi-landaratxo barriak landatu doguz, ondoren datozen laikoak ederragorik egin ahal dagien. Dana dala, Gure Jesus maiteak hori eta gehiago merezi dau. Eskerrik asko!!! Zuentzat bertso barri batzuk bihotzez.



**Aita Santu eta gotzai
praile, apaizak ere bai,
maila berean dira laikoak
Eleizan osagai.**

**Badira grazi ta dohai
Jaunak emonak nolanahi,
Gainerakoan Eleiz Amagan
danok gara anai.**

**Eleiz Amaren indarra
ez da txin-txin parra-parra,
bakoitzak bere lekuan emon
behar dau paparra.**

**Kargu, titulu ta abarra
mundukeizko gangarra,
lehenengo danok daukagu kristau
on izan beharra.**


**Gora dagigun Jainkoa,
hau ere ez da nahikoa,
mundu barruan prestatu behar
pobreentzat mahaikoa.**

**Kristau aste ta jaikoa,
bizi garan sasoikoa;
besteak beste Eleiz zara ta
jar zutik laikoa!**

ONDO MEREZITAKO TXAPELA

Horixe! Askok merezimendu gitxiagotik eskuratzen dabe irabazle-txapela. Alde batetik bizitza luze baten ondoren, hainbeste urte osasunak emon ahala eta doan gainera, maitasunez, eta gehiengoaren ustez, hutsaren hurrengo lanagaitik...Bigarren, egiten dozuena ez inok ikustearren, ez txalo zaparradaren bila; Gorengo Haren maitasunak emonda. Familia bat aurrera ateratea lortu orduko, beste familia maitagarri bat (Eleizea) aurrera eroaten laguntzen, arnaseak dirauan arte. Gure anai-arreba Gipuzkoarrak NAGUSI deitzen deutse zaharrei. Pertsona txiki edo nagusi azkenean neurtzen da, tente gelditzen dan Bakarrak neurtuta.

Ikusten dozuenez, ez dot inoren izenik jarri, beste batzuek ere hainbesteko balorez isilean gelditu diralako. Ondo esanda dago: *"Zure ezkerak ez dagiala jakin zure eskumeak zer egiten dauan"*. Eleiz bidean lez, herrikoan ere laguntzen diharduzuenok alkarrekin anaitasunez jokatu, maitasun bidean ez dago zu eta ni alkarren aurka egiterik. Ez leuke egon behar, azken baten Jaun bakarraren seme-alaben alde jokatzeko da-ta. Zerbitzen dozuezan hainbeste gaixo eta behartsuen izenean, eskerroneko bihotz guztiak bat eginda **ESKERRIK ASKO** eta **JAUNAK BEDEINKATU ZAGIEZALA**.



Gogoan ditut ondo gordeta
Joxe eta Manuela,
euron antzera hainbestek dauke
irabazita txartela.

Larogei urtez gorantza eta
zuzen barruko nibela;
neurri onean erabiliaz
bideetan manibela,

beti biztuta ondo zainduaz
sinismenaren kandela
Kendu barruko ustela,
eta haizeak orbela...
Ekin ta jarrai beti aurrera
jokalariak bezela,
eskuan dauka bakotxarentzat
JESUS MAISUAK TXAPELA!

BIDEAN KONTU-KONTARI

Fede bizitzan Espiritu Santua da Jesusen bideetan argitzen gaituana. Kontua zera da: Ez dogula beragaz kontatzen, edota ez deusogula atea zabalik izten barrura sartzeko, giltza beti geure esku euki gura izaten dogula. Uste osoa Jaunagan jartzea, gure etorkizuna bere esku iztea, Jesus gure Maisuak bere ordu larrietan erakutsi ederra emon euskun: *“Aita, ez bedi egin nire nahia, zurea baino”* (Lk 22, 42). Otoitzean eta hiru aldiz otoitz bardina eginaz. Gainera bere lagunak ondoan lozorroan egozala.

Bizian Gorako gure lagunak zelango erakutsiak emon deuskuezan bizitzako estu-larrietan! Ez otoitz luzeak eginaz, baina bai gauza bardin antzekoak hainbeste aldiz errepikatuz. Izan ere, gure anai-arrebok bizitzan zehar gorriak eta gordinak jasan behar izan dabez eta Jaunagan uste osoz onartzen ahalegintzen dira. Sinismena, Jaunagana umetxoak lez zabaltzea da, nahizta amaren zaplatekoak hartu, baina “ama” garraxiz eta uste osoz amantaletik oratuz.

Horretarako ikasleak Maisuagandik danetariko erakutsiak jaso ebezan: *“Aita, zergaitik itzi nozu bakarrik?”*. *“Aita, zure eskuetan izten dot nire espiritua”*. Biak egoera bardinean, baina beti Aitaren eskuetan bere bizia eta etorkizuna itziaz. Gure Bizian Gorako anai-arrebak bizitzako bidean ikasten joan dira Aitagazko hartuemonean pausoak emoten Espirituaren argitan. Lehenago urte askotan buruz ikasitako errezu asko eginaz, baina apurka apurka Jesus Jaun bidelagunagaz alkarrizketa luze eta gozoak egiten ikasiaz. Honetan asko lagundu deutse, azken urteetan, batez ere, erabili dogun mantra antzekoaren bidez: Gaurko eskuarteko tresna barrien bidez, egunero Jesusen Ebanjelioko ataltxo bat –danentzat bardina, eta sarritan erabiliz- barrua gozatuz, alaituz edo sendotuz. Bideko lagunagaz maitasunezko hartuemonak eginaz. Batez be, Pandemia luze eta mingarriaren barruan, egunero luzeago eta sakonago jardunaz. Eta zelango eskerrona eta bizipoza agertzen izan daben!. Jesusen iturriko bidea ondo ikasita eukiteak asko laguntzen izan deutse holango ordu latzetan.



Jainkoa gizon egina
ume koxkor atsegina,
pekatuan ez, bestetan dogu
gurekin bardina.
Badaki zer da samina,
egin nahi eta ezina...
Gurutze baten gugaitik hil zan
hain maitale fina.

Aita dala ta ez dala,
zenbat neke astrapala”!
Bere Erreinua zabaldu nahirik
Haren egin ahala...
Aitaren Seme leiala
guretzat bihotz-zabala;
gorengo mailan beti jartzen dau
gaixo ta makala.

Gurutze baten ezarri
oinaze minetan larri;
zigor, arantza, Gurutza ditu
Jaunak ezaugarri
Ondo daki gure barri,
gogora daigula sarri:
Gurutzan hilez gaitu Jesusek
bizira ekarri.

JESUS UMEA JANZTEN

Urteak dira Teresa jubilatuta zala. Umeak gogoko jakozan, gainera hainbeste urte andereino egona zan. Halako baten herritxo haretara hainbeste kanpotar etorri ziran. Umeak ugari, eta gehienak errukarri. Gure Teresa konturatu zan familia bateko umeak ez eukela ezertxo ere, ez janzteko, ez ezertarako. Jesus maite dauanari Berak argitzen deutso barrua, Berak mirariak egiten erakutsi eta lagundu zer zelan egin. Maitasunak ezinak martxan ipini ohi ditu. Handik-hemendik jantzi, oinetako eta abar eskuratu eta hor dago sarri amagaz bakarrean umeentzat jantziak eskuz aldatzen. Berak esan eustanez umetxo hareek Jesusen ordezeko umetzat hartu ebazan, Ejitora ihes egindako Jesus umea, eta bitarteko egiten ebana bere ama Maria. Sinismen argitan zenbat gauza ikusten diran, eta zenbat egintza eder egiten diran! Benetako maitasuna ez ei da neurtzen mezaz eta errosarioz, errukizko egintzakaz baino...Hori da benetako maitasuna.

Hona andereño Teresa
Jesus dau bere interesa,
ikastolako bere lanetan
beti da arteza.

Ume askoren pobreza
onartzen ez da erreza;
baina fedea arindu oi dau
lanbide nekeza.



PANDEMIA ALDIAN ITURRI-BILA

Pandemia aldi hau ona izan da barrua hutsik ala beterik dogun usmatzeko. Bat baino gehiago izan dira, atzeratuta gerorako izten diran ardurak, egitekoak, patxadaz eskuratu eta burutzeko. Ingururako urtenbideak zarratzen euskuezan ezkerro, horra barruan kabidu ezinik jentea, nerbioak aidean, geure gogoa eta giroa aldatuta...Eta Bizian Gorako lagunak zer? Harritzekoa izan da jentearen eskabidea: "Inoiz barriro alkartuko ete gara?" Eta zelan alkar lagundu, poztu, kontuak alkarren artean jorratuz zehatz mehatz.

Eta hara azkenean noraino jo dogun: Mantra antzeko "bihotz-kopau" gozo eta barru betegarriak taldeetako arduradunei bialdu; honeek zelan edo halan taldekoen eskuetaraino helduazo pikokada pozgarri honeek eta taldekideak bai eskertu bihozkada honeek!. Hainbat kasutan, norberak ezin badau, seme-alaba edo ilobaren baten laguntzaz lortu laguntzaren bat eta pozik aurrera. Ai, gura danean eta barruak biziro eskatzen dauanean, zelan edo halan betekada gozo ederrak egiten dira. Izan dogu Milak, Marinnanjesek eta hirurok zereginik asko telefonoz alkarrizketa luzeak egiten eta eguneroko "pikokada" gozo hori zuengana helduazoteko. Bai pozik be! Gero eta gehiago dira zoritxarrez kristauak euren barruko Lagunagaz konektatzen ez dabenak. Aita Santuak errepikatzen deusku: *"Pandemiatik urten daigula geure barru bizitzaren arduraz hobetuta"*. Holan balitz! Asko sufriduazo arren, Pandemiatik urtenda gero ere virus gaizto horrek itzi deiskula osagarriren bat gerorako. Ez daigula galdu geugan dana aztertu eta bide zuzenak hartzeko ahalmena. Pandemia eta antzeko barik be, jakin daigula barru bizitzara sartu eta gure Lagun maitagarriagaz hartuemon samur sakonak gozatzen.

Ustez adin betekoa,
ez naz atzo goizekoa;
baina gero ta egarriago
dabilkit kolkoa.
Sinisten dot Jaungoikoa,
kristau naz ni betekoa;
oraindik ez dot Jesukristogan
sinisten nahikoa.



Jainko ta gizon batera
biak benetan gainera,
Jainkoa gizon, gizona Jainko
hau dok hau aukera!
Pekatuak gorabehera
zorionekoak gera
Aitarenean bitarteko ona
dogu Jesus Bera.

Nun dagon gaixotasuna:
agertu hor maitasuna;
bihotz-barritu ta sarri deitu
Jesusen izena.
Lehenengoa da azkena,
azkenengoa lehenena;
azpikoz gora jarri deusku-ta
munduko ordena.

ERRROMAKO AITA FRANTZISKOK LAIKO SANTUAK NAHI DITU



Geure paper pila honeri amaiera zelan emon? Errromako Aita Frantzisko, beste arlo askotan lez, Espiritu Santuaren argiz jantzitako fededuntzat daukagu. Gainera kristau aitita-amamen aldeko maitale bete-betea da.

Lehenengo testua Leonardo Bof teolojiako maisu haundiak dinoskuna da: "Plazerra zentzunetan geditzen da, poza, barriz, bihotzeko kontua da. Pertsona bategaz topo egitetik sortzen da: Nazareteko Jesusegaz. Aita Frantzisko da topaketa honen testigu. Agortu ezineko pozaren eta edertasunaren iturburua sortu eban beragan, bere bizitza osoa aldatuz. Frantziskorentzat ebanjelizatzea esperientzi hauxe barriztatzea da: eta Eleizaren egitekoa: Jesusen irudiaren freskotasuna eta lilura berreskuratzea. Kristautasuna ez dalako dotrina bat zabaltzea, Pertsona horregaz topo egitea baino".

Eta bigarrena, Dostoieski errusiatar jakitun eta Pentsalari Haundiarena: "Sarri Jaunak barrua pozez bete deust: Horreetariko baten, bizitzaren kredo hauxe sortu eban nigan betiko: "Nik sinisten dot ez dagoala

bestarik ezer ederragorik, sakonagorik, perfektuagorik Jesukristo baino. Ez dagoala, eta egon ere ez dala sekula egongo. Eta nik neurekautan sarri gaineratzen dot maiteminez: Hori baino gehiago: Norbaitek argituko baleust Jesus hori ez dagoala egian eta egirik ez dagoala Beragan, gurago dot Jesukristogaz gelditzea egiagaz baino”.

Eta guk geure txikian bertsotxu batzuekaz guztioi gogotik esanaz: ON EGIN!!!

Doinua: "Ikusten dozu"

1

Gu gara antxinakoak
kristinau katolikoak
itxuraz benetakoak.

Entzun zer dinon Aita Santu dan
Frantzisko Erromakoak:
"Beto bai santu laikoak,
Jesusen antz-antzekoak;
andra ta gizonezkoak

2

Ez da behar sotanarik
gitxiago mantilarik,
izan al da hori barik...
Gure etxean edo auzoan
ez al da santu-santarik?
Ez da txiste ez bromarik,
nik ez daukat zalantzarik:
ez al dogu izan amarik?

3

Pertsona zerbitzaria,
behartsuen pozkaria;
hori bai dala saria!
Laikoak izan ziran munduan
Jesus ta ama Maria;
Laiko santu ugaria
Frantziskoren guraria:
posible dan miraria!

4

Gogo beroz jainkozale
ta hurkoaren maitale
etxe, eleiz eta kale.
Erreinuaren alde dihardu
munduan jo eta dale;
nahiz gaixo, triste eta aje,
ez deustu egingo kale,
hau santua da ta bale!

5

Sinismenaren argira
santuak testigu dira,
ez dagoz gora begira.
Espirituak bialtzen ditu
Aita Jaunaren mahastira
gizartearen erdira,
Jesukristoren distira;
badira batzuk sikira!

6

Irabazteko nahimena
ta sufritzeko kemena,
hau da biderik onena.
Sarri gogora ekarri fedez
Jesukristoren izena.
Oraindik ez da azkena,
zuk izan itxaropena,
zeurea da garaipena.

7

Zu zara argi munduan
ta gatza bizimoduan,
lagun behar dan lekuan.
Kristau laikoa, ekin adorez
zeure ekintza santuan
eta euki seguruan
zure izena zeruan
dago santu-liburuan.

8

Kristinau laiko normalak,
Jainkoarekin leialak,
hurkoarekin formalak.
Etxe ta kale irribarrez ta
hartuemonak zabalak,
nahiz sarri izan makalak
jarrerak samur apalak;
horra santu mundialak!

9

Kristinau santu laikoak
geure etxe, auzokoak
geure lagunartekoak.
Jainkoa lagun, euren artean
geu sartzeko modukoak:
ez pekaturik bakoak,
bai ahalegindutakoak,
gainerakoa Jainkoak.

10

Barriketak barriketa,
badakigu errezeta,
hobe balego beteta...
Egi bihurtu daigun Frantziskok
egin dauan ameseta:
argitu zure kopeta
alkar lepotik kolpeta:
Laikoa, hori dok eta!

Martzel



